

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko azaroaren 12a • IV. urtea • 176. zenbakia • DOAN BANATZEKO



**BARRUAN,  
ZURE HERRIKO  
ALDIZKARIA**



**JOSE ANTONIO AJURIA / LAGUN ARO**  
*“Osakidetzara pasatzea  
 administrazioak erabaki du, ez  
 da Lagun Aroren nahia” /8-9*



**Goienka2a**  
 Kilometroak 2005  
 jaiak hasierako  
 txanpa du gaur

**ASTEKO GAIA:** BI ASTEAN, DIRU ZAHARRAREKIN ORDAINDU AHAL IZANGO DA

## Pezetak bueltatu dira gaur Oñatira

Euroak ia hiru urte darama gure artean, baina epe honetan bada bazterren baten pezetak aurkitu dituenik ere. Horiek berriro era-

biltzeko aukera dugu gaur hasi eta datozen bi asteotan, Oñatin. Izan ere, hango Txanda merkataritza elkartereko dendekek eurotan

zein pezetatan kobratuko dute. Ekintza horren bidez, Espainiako Bankura jo barik atera ahal izango ditugu pezeta zaharrak. /3



Pezetako billeteak erabil daitezke Oñatin. Argazkian, San Migel Kooperatibako bezero eta kutzazain bat.

LEIRE KORTABARRIA

## Neguko eguraldiarekin batera, elurra iritsi da gure mendietara

San Martinetan udako eguraldia egiten duela esan ohi da, baina aurten negu gorria ekarri digu. Aste osoan eguraldi euritsu eta traketsa izan dugu, tenperatura hotz eta elurrarekin lagunduta. Urbian, esaterako, eguaztenez hasi zuen elurra botatzen, eta atzo goizean 5-6 zentimetroko elur kapa zegoen. Aizkorri, jakina, zuri-zuri zegoela adierazi ziguten Urbia-

ko fondako lagunek. Pello Zabala eguraldi adituaren esanetan, berriz, Arantzazura ez zen elurra jaitsi haize handia ibili zelako. Hala ere, 2-3 graduko tenperatura izan zuten eguaztenezan santutegian, eta egun bitan 100 l/m2 euri bota zuen. Pello Zabalaren esanetan, ipar-ekialdeko haizearekin eta tenperatura hotzarekin jarraituko dugu asteburuan. /4

### BERGARA

**Batzokiaren mendeurrena gaur hasiko dira ospatzen**

Begarako batzokia ireki zutela 100 urte bete direla ospatzeko, jardunaldi irekiak antolatu ditu Bergarako EAJk. Gaur, egubakoitza, Javier Clemente eta Juan Luis Larreak euskal futbol selekzioen gainean jardungo dute, Iñaki de Mujika moderatzaile dutela. Miguel Altuna ikastetxean izango da hori, 19:30ean hasita. Iñaki Anasagasti, Xabier Arzalluz, Josu Jon Imaz eta Joseba Egi-bar ere etorriko dira. /5

### ARRASATE

**Aurkeztu dute genero indarkeriaren aurkako plataforma**

Martitzenean aurkeztu zuten, prentsaurrekoan, emakumeen aurkako tratu txarrak salatzen herri plataforma. Herritarrek eta hainbat partidu politikotako ordezkariak osatzen dute taldea, baina esparru guztietako emakume eta gizonei egin diete batzeko dei. Emakumeen aurkako tratu txarren arazoaren gainean kontzientziaztea da plataformaren helburua, baina gizartea oso-osorik inplikatu duen ikuspegitik. /7

**Makinak alokatu eta saltzen ditugu**  
 Eraikuntzarako eta obra publikorako

**ALKIDEBA**  
 Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea - 20590 Sorluze  
 Tel.: 943 75 15 54 . Faxe: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia - Bizkaia  
 Tel.: 943 17 13 62 . Faxe: 943 17 14 56

**natural sport wear**

**2004ko Udazken-Neguko denboraldi berria**

\*Eskuragarri dauzkazu zure Sportland eta Forum dendetan

Garibai Etorbidea, 2-6  
 www.forumsport.com



KIROLA ZEURE ESKURA

**Astelehenean, eskubaloia gehigarria**

Asteleheneko Goienkaria-k ibarreko eskubaloia taldeen gaineko zortzi orriko gehigarria kaleratuko du astelehenean.

ESKUBALOIA 04/05 DEBAGOIENEAN



Egin ezazu  
Kontratua eta  
eskuratu

**SIEMENS CX 65**  
**90€-an\* +**

**errugbiko poloa opari**

**ROUTER**  
**COMUNICACIONES, S.L**

Maalako Errebala 8, behea  
Atzeko aldea  
20500 Arrasate  
Tel.: 943 71 27 81  
Fax: 943 71 17 85

**Euskaltel** en Banatzaile Ofiziala

\*Euskaltel Hautaketa edo Leihoaren bezeroentzako PSPa. Promozio hau Euskaltel Mugikorren Kontratuan 2004/11/30 baino lehen egiten diren aldentzat da baliozkoa.



Aro  
berria,  
erakusketa  
berria.



**FAGOR**

**jakin**a  
BAINU GELAK · SUKALDEAK · KERAMIKAK

Amillaga 10  
BERGARA  
943 76 03 30

# Pezetekin erosi ahal izango da datozen bi asteotan Oñatin

## Jendeari aukera eman gura diote billete zaharrak ateratzeko

LEIRE KORTABARRIA

**L**aster hiru urte beteko dira uuroa iritsi eta pezeta joan zela. Baina gure moneta zaharra oraindik ez dago ahaztuta, eta gaur, egubakoitza, itzuli egin da gurera, bi astean besterik ez bada, pezetak erabiltzeko aukera izango dugu eta. Izan ere, Oñatiko dendariak, gaur, azaroak 12, hasi eta hilaren 27ra bitartean, euroko billeteak onartuko dituzte erosketetan. Hain zuzen, Oñatiko Txanda merkatarik elkarteko bazkide diren ia 90 dendetan erosi ahal izango dugu pezetekin. Bueltak eurotan jasoko ditugu. Herriko denda eta zerbitzu gehienek eskainiko dute aukera hori.

“Askori entzuten genion etxean oraindik pezetak zituztela, eta jendeari horiek ateratzeko aukera eman gura diogu”, dio Txanda elkarteko Ixiar Unamunok.

Horrez gain, epe horretan erosten duten denei zozketa txartelak emango dizkiete. Azaroaren 27ko Loteria Nazionalen saritutako zerbaki bera duen txartelaren jabeak 1.250 euroko txekea jasoko du erosketak egiteko. 250 euroko beste bederatzia emango dizkiete azken lau zifrak berberak dituzten txartelen jabeei.



Debagoienean geratzen diren pezeta billete asko bildumagileek dituzte.

### ESPERIENTZIA ARRAKASTATSUA

Ikusi egin beharko da ezkutuko zenbat billete agertzen den. Zaila da auresaten, izan ere, dendariak eurek esaten dute herriarrok eurora zeharo ohituta gaudela dagoeneko, eta jende nagusiak bakarrik izaten duela zenbatekoak pezetatan eskatzeko ohitura.

*Ordizian hilabete baten egin zuten ekimen hori, eta ia bi milioi pezeta jaso zituzten*

Hala ere, Oñatiko ekintzak badu aurrekari bat, arrakastatsua gainera: Ordiziako dendariak joan den maiatz osoan egin zuten ekimen berdina. “Jendeari asko gustatu zitzaion eta kanpotik ere asko etorri ziren. Azkenean, milioi bat pezetatik gora bildu genuen”, azaltzen du hango merkatarik kabineteko Nekane

Agirrezabalak. Hori bai, Ordizian txanponak ere onartzen zituzten. Legazpiko dendariak ere antzeko zerbitzu antolatze asmoan dabilta. Ea ba zer gertatzen den Oñatin.

### EURORA ZEHARO OHITUTA

Ez dakigu zenbat debagoiendarrak izango dituzten oraindik pezetak. Bi arrazoiengatik gorde izan dira pezetak, oro har: numismatikoeak, bildumak egiteko, edo nonbaiten ahaztuta gelditu direlako. Bildumagileek ez dituzte billeteak emateko, jakina; hala ere, billete zaharragoak balio handiagoa dute berriek baino, eta matxurak edo tolesdurak dituztenak ere ez dira hain interesgarriak bildumagile baten dako. Hortaz, inork billetearik badu, seguruenik da praktikotasuna nagusituko zaiola balio sentimentalari.

Dendariak gain, banketxetako arduradunek berresten dute herritarrok eurora ondo moldatu garela. Oñatiko aurrezki kutxa bateko zuzendari Miguel Angel Intzak dioskunez, “urtean bi lagun edo besterik ez zaigu etortzen pezetekin, edo horiek aldatu nahian. Adineko jendeak bakarrik jarraitzen du pezetetan pentsatzen, baita, bakarren batzuk, durotan ere”.

### IA BI MILA MILIOI, PEZETATAN Estatuan 320 mila milioi pezeta dago eurotara aldatzeko

Estatuan 1.934 milioi euro (320.000 milioi pezeta) dago oraindik pezetatan. Hau da, jendeak aldatu ez dituen pezetek diru kopuru hori osatzen dute. Horietatik gehiena, 1.098, billeteetan da. 2001eko abenduan 48.750 milioi euro zegoen zirkulazioan, pezetatan. Gaur egun, diru gehiago dago zirkulazioan Estatuan: 68.726 milioi euro, hain zuzen ere.

### OÑATIKO DENDARIAK Txanda Txartela eska daiteke elkarteko dendetan

Oñatiko merkatarik elkartek Txanda Txartela aterako du, bezeroei hainbat abantaila eta promozio eskaintzeko, eta erabiltzaileek %5eko deskontua izango dute abenduaren 15etik urtarrilaren 15era bitartean egiten dituzten erosketetan. Denda gehienetan erabili ahal izango da. Doan eska daiteke dendetan, eta eskatzerakoan aterki bat opari ematen dute.

### PREZIOAK KALKULATU Dendariendako lan handiena, prezioak pezetetara bihurtzea

Oñatiko dendariak Ordiziakoengandik ikasi dute esperientzia honetarako, eta ikasgai bat izan da alde aurretik eta gero lan handia izango dutela. Ordiziako merkatariek diote: “Nahikoa lan izan genuen prezioak pezetetara bihurtzeko, eta gero, bildutakoa zenbatu eta bakoitzak zenbat zegokion kalkulatzeko”. Hala ere, erosleek eskertu zuten lan hori.

### LAUROGITIK GORA Oñatiko denda eta zerbitzu gehienak dira Txandako kide

Txanda dendarien elkartearen barne 80 denda eta zerbitzutik gora dago, eta horiek onartuko dituzte pezetak datozen bi asteotan. Tabernak, jatetxeak, farmaziak eta distribuzio kate handietako saltokiak ez daude barne; bai, ordea, ohiko denda gehienak. Edozelan ere, elkartearen logotipoa bistan dute bazkide diren denda gehienek; ez dago errazterik.

Txinatar jatetxea  
**DRAGON ORIENTAL**



Eskatu eta  
**20 minutura etxean**  
janaria zure

- Ostiral eta zapatu gauetan izan ezik
- Gubieneko eskaria 12 euro
- 1,8 euro etxera eramateagatik

**Arrasate eta Aretxabaleta**

**943 79 85 33**

Araba etorbidea 3 ARRASATE

**Hemen GARBIKETAK**

Garbiketetan profesionalak gara

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Intxartxueta 16 behea  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 48 45  
Faxa: 943 71 30 58

**Ikastaroak hastear daude**

Berehala!

Autocad  
Photoshop  
Web orrien diseinua  
Office integrazioa  
Contaplus  
Nominaplus  
Finantziar kontabilitatea

AKADEMIA  
**BASTIDA**

943 79 35 33 [bastida@bastida.es](mailto:bastida@bastida.es)



Ramon Mendibil, Jose Luis Elkoro, Victoriano Gallastegi, Guillermo Etxebarria eta Pierre Aintziart eguazteneko prentsaurrekoan.

## Monzonen ibilbidea gogoratzeko hitzaldiak eta mahai-inguruak

*Telesforo Monzon jaio zela 100 urte beteko dira abenduaren 1ean*

EDU MENDIBIL

**Telesforo Monzonen jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldiak aurkeztu zituzten eguaztenezan Bergaran, prentsaurrekoan. Monzon gogoratzeko mahai-inguruak eta hitzaldiak izango dira martitzenetik aurrera.**

Victoriano Gallastegi alkatea, Pierre Aintziart Euskaltzaleen Biltzarreko presidentea, Guillermo Etxebarria Egan literatur aldizkariko zuzendaria eta Jose Luis Elkoro eta Ramon Mendibil Dorre Olasoko Sorrerakundeko kideak izan ziren Bergarako udaletxean egindako prentsaurrekoan.

Telesforo Monzon 1904ko abenduaren 1ean jaio zen eta haren ibilbidea gogoratzeko

mahai-ingurua izango da martitzenean Donibane Lohitzunen. Hilaren 17an eta 18an, berriz, bi hitzaldi izango dira Donostian, Dr. Camino liburutegian, 20:00etan. Monzonen poesigintzaren eta artikulugintzaren gainean jardungo dute Koldo Izagurrek eta Xabier Mendigurenek, hurrenez hurren.

Hurrengo egubakoitzean, berriz, Olaso Dorrean mahai-

*Azaroaren 19an  
Monzonen gaineko  
mahai-ingurua  
egingo dute Olaso  
Dorrean*

ingurua egingo da, 19:00etan. Juan Ignacio de Uriak, Piarres Xarritonek, Joxe Mari Urkiak eta Victoriano Gallastegik hartuko dute parte eta moderatzailea Jose Luis Elkoro izango da.

### **DORRE OLASOKO KULTUR ONDASUNAK**

Jose Luis Elkoro Dorre Olasoko Sorrerakundeko presidentea da eta Monzonen etxean diren kultur ondasunak herrira zabaltzeko garrantzia azpimarratu zuen. Zentzu horretan, udalak eta fundazioak elkarlanean jarraituko dutela baieztatu zuen alkateak. Monzon gogora ekartzean, herrian oso pertsona maitatua eta kulturalki gizon berezia zela esan zuen Victoriano Gallastegik.

Euskal Herrian zein erbeste-an politikan ibilbide luzea egin ondoren, 1981ean hil zen Monzon.

## Neguko eguraldiarekin batera, elurra iritsi da mendietara

*Mendi batzuetan elurra egin du; Aizkorrin, esaterako*

GOIENKARIA

San Martinetan udako eguraldia egiten duela esan ohi da, baina aurten negu gorria ekarri digu. Aste osoan eguraldi euritsu eta traketsa izan dugu, temperatura hotz eta elurrarekin lagunduta. Urbian, esaterako, eguaztenezan hasi zuen elurra botatzen, eta atzo goizean 5-6 zentimetroko elur kapa zegoen. Aizkorri, jakina, txuri-txuri zegoela adierazi zigten Urbiako fondako lagunek.

Pello Zabala, eguraldi adituaren esanetan, berriz, Aran-

tztzura ez zen elurra jaitsi haize handia ibili zelako. Hala ere, 2-3 graduko temperatura izan zuten eguaztenezan santutegian, eta egun bitan 100 l/m<sup>2</sup> euri bota zuen. Pello Zabalaren esanetan, ipar-ekialdeko haizearekin eta temperatura hotzekin jarraituko dugu asteburuan.


### **ISTRIPUA ERE BAI**

Eguraldiak ekarri zuen eragozpenik errepideetan. Eguaztenezan, furgoneta batek atzetik jo zuen kamioi zisterna bat, Olan, Arrasatetik Bergarako norabidean.



### **Pakeak medikuntza zentroa inauguratu du**

Pakea Mutuak medikuntza zentro berria inauguratu zuen martitzenean Bergaran. Medikuntza prebentiboaren arloan, azken berrikuntzak ditu zentro berri honek eta Pakeak Gipuzkoan daukan lider postuari eusten lagunduko dio. Pakeak ibarrean daukan zentro bakarra da Bergarako. Amillaga kalean dago eta orain berrizatu egin badute ere, urte asko daramatza han. Ibarrekoei ez ezik Zumarraga eta Urretxukoei ere eskainiko die zerbitzua. Etorkizunean, Eibarren, Irunen, Ordizian... Pakeak daukan zentroak ere berrizatu gura dituzte. /ENEO AZKARATE




# 4x4

## aukera zabalena

---

**Saltzeko eta erosteko**  
**Nahi duzun modeloa ez badaukagu,**  
**bilatu egingo dizugu**


**la berriak eta bigarren eskukoak**  
**(bost urte baino gutxiagokoak)**



**ZABALDU BERRIA!**

4QUATTRO4  
Aukerako 4x4 ibilgailuak  
Musakola auzoa 21 (Roneo parean)  
ARRASATE

Tel.: 605711576 eta 943 79 52 32  
E-posta.: 4quattro4@telefonica.net



DEBAGOIENEAN LABUR

## Zuzendaritza eta koordinatzailea aukeratu eta ildo politikoa zehaztuko ditu Aralarrek

Aralar alderdiak II. Biltzarra egingo zapatuan eta domekan, Donostiako EHUko Barriola eraikinean. 300 militante inguru bilduko ditu ezker abertzaleko alderdiak. *Ezkerretik Independentziara* leloa erabiliko du. Biltzarrean, zuzendaritza batzorde berria, koordinatzaile orokorra eta ildo politikoa erabakiko dira. Ezker abertzale politikoa eta eraginkorra egituratzea izango da biltzar honetako helburu nagusietako bat. Legebiltzarrerako hauteskundera eta Europako Konstituzioari begira indarberrituta eta proposamen edo eskaintza argiekin ateratzea ere badute helburu. Ibarreko ordezkariak Aralarko kideei ez ezik Aralarko zale guztiei ere luzatu diete Biltzarrerako joateko gonbidapena. Joan etorrirako herriko ohiko arduradunekin harremanetan jartzeko dei egin dute.

## Batasunak 'Konponbiderako ekarpenaren aurkezpen nazionala' egingo du domekan

Euskal Herriko gatazka politikoa konpontzeko ekarpena aurkeztuko du Batasunak domekan Donostiako Anoeta belodromoan. Proposamen hori "umiltasun politikoan" oinarrituta dago eta "bakea helburu hartuta eta konfrontazioa sortzeko asmorik gabe" egingo dutela nabarmendu du Batasuneko Mahai Nazionalak. Era berean, ez dela proposamen itxia izango agertu dute, eta "berrikuntza esanguratsuak" izango dituela. Proposamena ahalik eta jende gehienari helaraztea da Batasunaren helburua, eta, ildo horretatik, abendu bitartean 20.000 bat pertsonari zuzenean emango diote egitasmoaren berri. Halaber, beste alderdi politikoetako buruzagiekin harremanak izango dituzte.

## Aretxabaletako etxebizitza sozialen zerrendak ikusgai astelehenetik aurrera

Udalak finkatutako salneurrian salduko diren 185 etxebizitzaren hari- ra, datorren astelehenetik aurrera jakin ahal izango da zeintzuk izan diren onartuak. Zerrenda hil honen 15etik aurrera ikusgai izango da Brues eraikuntza enpresak Araba etorbidean duen bulegoan, eta Udaletxean. Guztira 286 lagun eskariak onartu dituzte, baina zerrendatik kanpo geratu direnek alegazioak aurkezteko aukera izango dute, abenduaren 9a baino lehen. 500 lagunek baino gehiagok egin zuten eskaria. Kirol etxetik Lausitara bitartean hainbat etxebizitza egingo dituzte, eta horietako batzuk Udalak finkatutako salneurrian salduko dira. 32 milioi pta balioko du etxebizitza bakoitzak, BEZ zerga kontuan hartu barik.

## Clemente, Anasagasti, Arzalluz eta Imaz, Bergarako batzokiaren 100. urteurrenean

Bergarako batzokia ireki zutela 100 urte direla ospatzeko jardunaldi irekiak antolatu ditu Bergarako EAJk. Gaur, egubakoitza, Javier Clemente eta Juan Luis Larreak euskal futbol selekzioaren gainean jardungo dute, Iñaki de Mujika moderatzaile dutela. Miguel Altuna ikastetxean izango da hori, 19:30ean. Azaroaren 26an, Iñaki Anasagastik mendeurrenaren gaineko gogoetak egingo ditu. Abenduaren 2an, Juan Luis Bikuña kazetariak idatzi duen Bergarako batzokiaren 100. urteurrenaren inguruko liburua aurkeztuko du, eta Xabier Arzalluzek horren gainean berba egingo du. Abenduaren 16an, Estatutu politiko berriaren gainean egingo dute berba Jose Manuel Castellsek eta Xabier Ezeizabarrenak. Horiek guztiak Miguel Altunan izango dira 19:30ean. Abenduaren 12an, azkenik, bazkaria izango da batzokian afiliatuendako. Josu Jon Imaz eta Joseba Egibar etorriko dira.

# Liburua aurkeztu eta omenaldi hunkigarria Jesus Larrañagari

Kooperatibek globalizazioan dituzten erronkak aztertzen dira liburuan

GOIENKARIA

Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileetarikoa batek, Jesus Larrañagak, idatzitako liburua aurkeztu zen, joan den eguaztenean, Arrasaten. Maiatzean hil zen Larrañaga, eta liburuaren aurkezpen ekitaldiak omenaldia egiteko balio izan zuen.

MCCko ekitaldi aretoa jendez lepo zela aurkeztu zuten *Dilema del Cooperativismo en la Era de la Globalización* liburua. Kooperatibismo eta globalizazioaz Jesus Larrañagak egindako hausnarketak jasotzen dira liburuan.

### FAMILIARTEKO ETA ARDURADUNAK

Jesus Larrañagaren familiartekoak ere ekitaldian izan ziren, eta une hunkigarriak bizi izan ziren, bereziki haren alaba Amaia esker- rrek ematen hasi zenean. Jose Mari Ormaetxea kooperatibis-



MARIA AGIRRE

Jose Mari Ormaetxea eta Joseba Azkarraga sailburua liburuaren aurkezpenean

moaren beste sortzaileetarikoa batek ere esku hartu zuen aurkezpenean, eta hunkituta, birritan hitzaldia eten egin behar izan zuen. Larrañagaren eskuzabal-

tasuna, konpromisoa eta lanerako gogo nabarmendu zituen Ormaetxeak. Joseba Azkarraga sailburuak, berriz, Larrañagaren izaera kritikoa.



## Sinadura batzea presoan alde

Debagoieneko Amnistiaren Aldeko Mugimendua eta Etxerat sinadura bilketa egiten hasiko dira bihartzetik, zapatua, aurrera. Sinadura bilketa eskualdeko herri guztietan egingo da, eta beronen bidez *Euskal Presoak Euskal Herri- ra!* aldarrikatzea izango dute helburu. Argazkian ageri dira ekimena bultzatzen duten lau debagoiendar: Maite Aristegi (EHNEko idazkari ohia), Mikel Martin (Ereitteneko zinegotzia), Asier Agirre (Etxerat, preso senidea) eta Larraitx Ugarte (abokatua). /GOIENKARIA

autonomoentzako eta mikroenpresetarako mintegiak

## Zer behar dut Internetera konektatzeko?

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Posta elektronikoa, Web orrialdea, etab. eduki nahi badituzu, **merkatuan aurkituko dituzun aukerak eta horietatik egokiena aukeratzeko irizpideak** erakutsiko dizkizugu: banda zabalera, ADSLa, MODEM kablea, tarifa finkoa.

Debagoiena

azaroak 16

ARRASATE

Mondragon Goi Eskola

Politeknikoa (Iraunkor)

Orduetgia: 18:00-20:00

Informatzeko eta izena emateko:

902 252 595

www.miramondigital.com

ursosos@miramondigital.com

Antolatzailea:



Miramón  
Enpresa Digitala

Sustatzaileak:



**Zumelaga**  
J A T E T X E A

62 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

## Gutunak

## Intsumisioa

Euskal Herriaren egoera sozio ekonomiko, zein politikoa aztertzerako orduan, bi arrazoi kontutan hartu behar ditugu, bi estatuen arteko zatiketa.

Euskal Herriak dituen balore politiko, kultural eta sozialak bere administrazioaren gidaritzan duten Estatu Espainola zein Frantsesaren "organigraman" diluitzen dira, eta era berean Europar Batasuna bizitzen ari den eboluziora moldatzen saiatzen ari dira bi estatu hauek.

Euskal Herria kulturalki, sozialki eta politikoki, oso aberatsa den herria da, bere egoera urteetan zehar balore hauek mantentzeko egin den lanean oinarritzen da.

Momentu konkretu honetan Segi gazte erakundeak balore hauen defentsan tresna berri bati inpultsoa ematea eta egunerokotasunean jarrera intsumitu bat hartzearen bultzada egin nahi du.

Intsumisioa maila zabalenean zabaltearen lana ez da soilik ideologikoa, praktikan egin behar den borroka ere bada. Gaur egun, tresna batzuk mahai gainean daude gure nortasuna bermatzen dutenak, adibidez EHNA.

Beste maila batean, Euskal Herrian badaude Estatu Espainolaren zein Frantsesaren administrazio delegazioak: Correos, epaitegiak, Inem, Once...

Guzti hauen identifikazioa eta gure administrazio guneak behar ditugunaren errebindikazioa, Euskal Herriaren nortasun propioaren mezuaz dagokiguna.

Ez gara espainolak ez frantsesak, euskaldunak gara eta kito! Gazte, estatu zapaltzaileei intsumitu zaitez, jo eta ke!

MAITANE ETXEBERRIA  
Arrasate

## Ikasleon nazioarteko eguna

Urtero legez heldu da azaroaren 17a, ikasleon nazioarteko eguna. Mundu mailan bezala, Bergaran ere egun hau ikasleontzat jai eta aldarrikapen eguna da. Bergarako Elementaleko Ikasle Abertzaleak taldekook ez gaude ezer ospatzeko moduan, gure ikasketak hizkuntza arrotz batean egiten gabilzalako. Lanbide Heziketa guztietan bezala, hemen ere ikasleon eskubide kartan onartutako hizkuntza eskubidea ukatzen zaigu beste batzuen artean.

Honetaz, IA aspaldi konturatuta dago, baina badirudi Bergarako eskola Elementalean dauden 240 ikasleak ez direla konturatu edo egoera berdina zaiela.

Horrela ulertuko genuke adierazten duten jarrera pasiboa. Horren adibide garbiak dira IAK kurtso hasieratik hona jarri dituen bi egun nagusiak. Bi egun horiek klabe bezala geneuzkan egoeraren aurrean lanean hasteko. Urriaren 15ean IAREN aurkezpena zegoen eta ez zitzaigun inor agertu eta azaroaren 4an IAREN lehenengo batzarra zegoen. Bertan, arazoei aurre egiteko lan taldea sortu nahi genuen, baina berriz ere ez zitzaigun inor agertu.

Ikasleok ez bagara inplikitzen ezin dugu hizkuntza eskubidearen zapalkuntza bukatu. Ikasle borroka lortuko ditugu eskubideak!. Baina horiek lortzeko ikasle borroka behar dugu. Alda ezazu jarrera ikasle, eta horrela guk, hemen, orain..., Elementalaren historia idatziko dugu!. Ikastetxea guztiz euskaldunduta dagoenean azaroaren 17 zorionsu bat ospatuko ez dugu, baina bitartean ez da horrela izango.

MIGUEL ALTUNAKO  
IKASLE ABERTZALEAK  
Bergara

## Nire ikuspuntua, kultura antzokien gainean

Lehenengo aldiz ikusi dugu Elgetan Lobra baten estreinaldia. Eta estreinaldiaren ostean, nork bere ondorioak atera ditu; batzuei beste batzuei baino gehiago gustatu zaie; beste batzuek interpretazio bat beste bat baino gehiago gustatu zaie. Azken baten, eta hori da garrantzitsua, nork bere analisia egin du ikuskizunaren gainean.

Nik neuk ere egin dut analisia, eta kezka txiki bat dut, zurrumurru batek eragindakoa; zurrumurru horrek dio ikuskizuna ikusteko sarrera garestiegia zela, gehiegizkoa zela. Nire iritziz, jakina, 12 euro ez da prezio merkea, baina irizpide horri eutsi aurretik, gai honek analisia behar du.

Lehenik eta behin, kontuan hartu behar dugu proiektu baten hasieran gaudela, eta Elgetak eta elgetarrek esango dute hasitako bidea zuzena den edo ez. Hau da, kostu ekonomiko handiko ikuskizunak programatzen badira, eta herriak ondo erantzuten badu, ikuskizun onak bata bestearen ondoren etorriko dira. Uste dugu Elgetak beste herri batzuek duten eskubide bera duela gauza onak ikusteko. Ala herri txikiak ez dugu eskubiderik halako gauzak ikusteko? Herriak eskubidea bakarrik ez, ikusi egin behar ditu horrelakoak, kultura arnastu, kultura usaindu... Horrek eragingo du jendea erakartzea Elgetara, dirua gastatzea herrian eta, azken baten, guztiok jasotzea zatitxo bat pastel horre-

tatik; izan ere, jendea etxean geratzen bada, ez da gastatzen; ez bada gastatzen, ez dago kontsumorik; eta ez badago kontsumorik, herria hil egiten da.

Proiektu polita dugu aurrean, ederra, esango nuke, baina argi! Hau, oraingoz, proiektua besterik ez da. Denek jakin behar dute kultura defizitarioa dela (Elorrion, urrun joan barik, Udalak 15 milioi lurperatzen ditu urtero kultura proiektuan).

Elgetako gestio modeloa ez da Elorekoaren berdina; baina egia da hainbat ezaugarri dituztela batera: laguntzak kultura zirkuituetan, Diputazioa, eta abar. Bestalde, gauzak ez dira nahastu behar; hau da, ez dira konparatu behar Espaloia Antzokiak jasotzen edo jasotzen ez dituen laguntzak beste estamentu edo taldeek jasotzen dituztenekin. Eta horrek ez du esan nahi horregatik tratamendu preferentea izan behar duenik, baizik eta herri honen elementu bakoitzak bere espazioa duela edo izango duela, eta eztabaidak ez du izan behar herri hau edo beste hau... Kontua da onartzea proiektu guztien barietatea, eta, hala, edozein ideia edo gure herriko edozein estamentu berpiztuko laguntzak bilatzea.

Laburbilduz, ez dezagun konfrontaziorik sortu, ez da horretarako unea; ez dezagun konparaziorik egin, batzuetan gorrotagarriak direlako; izan gaitzen positibo eta denborak esan dezala; eta proiektuak ez badu funtzionatzen, izango dugu astia kritikatzeko, zuzentzeko edo desbideratzeko, baina, batez ere, disfruta dezagun momentuaz.

Baina hel diezaiogun berriro gaiari; antzerkia edo beste ikuskizun bat ikustea garestia da. Obra hori bera ikusiko da 20 euro ordainduta ere. Garestia dela pentsatzen dugu oraindik ere? Batzuek esango dute Espaloian aulki asko egurrerakoak direla, eta egia da, baina beste inon ez daude aktoreak ikusleengandik hain gertu. Hala ere, oraindik lehenengo 1.500 pezetaren alde geratzen da; hortaz, esatea beste antzoki batzuetako sarreraren prezio berean Elgetan obra bera ikusi eta gainera afaldu egiten dudala...

Ba ez da txantxa. Gaur egun hori da merkatuko prezioa, eta nahiz eta pentsatzen dugun ordaindu egiten dugula, era berean pentsatu behar dugu horren guztiorren atzean daudela pertsona asko bizi eta kobratzen dutenak: teknikariak, argiketariak, zuzendaria, makillatzaileak, jostunak... Hala, geratzen dena ez da urrea, inondik ere. Lehen mailako antzezlanak ikusi dugu, eta 12 euro ordainduta. Zenbat kostatzen da lehen mailako futbol partidu bat? Eta tenis edo saskibalo partidu bat? 60 eurotik gora. Hortaz, hausnartu eta apustua egin dezagun. Izango da astia damutzeko. Gero geroakoak!

JOSU DE VEGA  
Elgeta

## Presoen alde, korrika

Behobia-Donostia herri lasterketa dela eta, Arrasaten euskal preso politikoen egoera salatzen herri ekimena antolatzen dugu. Ekimen honen helburua, presoek bizi duten egoera salatu eta hauengana hurbiltzea da. Honetarako, Behobia-Donostia lasterketa, Arrasateko presoen izenean korrika egitea erabaki dugularik.

Esan behar dugu, ekimen honek harreara zabala izan duela, asko izan direlako ekimen honetan parte hartzerako animatu direnak. Honela, Arrasateko preso politikoko guztien izenak eman ditugu Behobia-Donostia lasterketan, eta denek izango dute beraien izenean, era anonimoan, korrika egingo duen boluntario bana.

Ekimen honekin zera aldarrikatu nahi dugu:

Euskal Presoak Euskal Herriratzea. Herri honek demokratikoki eskatutakoa ukatzen zaio, honela dispertsioak mantentzea presoen eskubideen ukapen sistematiko bat dakar: jipoiak, desasistentzia medikua, urruntasuna, tortura, isolamendua, eta abar. Arrasaten ditugun 18 preso politikotatik, bakarrik dago Euskal Herriko espetxean, gainontzeko 17ak Euskal Herrikan kano dauden espetxeetan dituzte, hauek bisitatzerako joateko, honek dakarren isolamendua eta tratatu txarretarako inpunitateaz gain, arriskuz beteriko kilometroak egitera derrigortuz lagun eta senideak.

Presoen senide eta lagunei elkartzasuna adierazi. Presoei ukatzen zaien eskubideen ondorioz, zigor gehigarria jasaten dutelako: kilometro askotako bidaiak egitera derrigortu, honek dakarren bizitza arrisku eta kostu ekonomiko handiarekin... Gizarteari konpromisoa mantendu behar dela gogorarazi. Presoen eskubideen alde gizarteak izan duen jarrera gogora ekarri nahi dugu, eta presoen eskubideak oraindik errespetatzen ez direla ikusiz, hauen aldeko ekimenetan esku hartzerako animatu nahi dugu gizarte osoa, ziur gaudelako presoen eskubideak errespetatuz herri honen askatasuna gertuago egongo dela.

Honako hauek dira Arrasateko presoak: Amaia Arrieta (Alcala de Henares), Aratz Gomez (Villabona, Asturias), J. Ignacio Gaztañaga (Granada), Jesus Mari Goikoetxea (Albacete), Jesus Mari Zabarte (Jaen), Jon Agirre (Malaga), Jose Gabriel Urizar (Jaen), Josu Arkauz (Salamanca), Josu Uribetxebarria (Puerto de Santa Maria, Cadiz), Kepa Urrea (Curtis, A Coruña), Premin Sanpedro Villabona, Asturias), Unai Parot (Cordoba) Luis Mari Azkargorta (Martutene), Kristina Goirizelaia (Fresnes), Igor Letona Biteri (Paris), Alberto Marin Etxebarria (Zaragoza), Saioa Alzua Galparsoro (Alcala de Henares) eta Gaizka Azkarate Garai (Navalcarnero).

PRESOEKIN SOLIDARIOAK  
Arrasate

**Goienkaria**  
DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendietza,  
Miguel Angel Elkoroberebar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berezibar, Arantzazu Arana  
SAILETAKO ARDURADUNAK  
Iñaki Iturbe (Diseinua)  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,  
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano  
PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate  
HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Marta Leturia

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak  
LEHENDAKARIA  
Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA  
Iñazio Arregi

## ANTZUOLA

### Gaztaina erre jana antolatu dute erretiratuek egunerako

Datorren egunean, hilak 18, erretiratuek antolatuta, berbaldia eta gaztaina erre jana izango ditugu.

Arratsaldean, 17:30ean, bizi testamentuaren gaineko berbaldia eskainiko du Iñaki Madariaga medikuak, Olanan etxean. Herri-tar guztiei dei egiten diete berbaldi horretara joan daitezen.

Iluntzean, berriz, 19:00etan, gaztaina erre jana egingo dute parrokiako lokalean. Parte hartzeko, aurrez izena eman behar da erretiratuen egoitzan, hilaren 16a baino lehen. /A.I.



ARTXIBOA

## BERGARA

### Euskal selekzioaren inguruko mahai-ingurua gaur Bergaran

Begarako Batzokiaren lehen mendeurrena ospatzeko ekitaldien barruan gaur, egubakoitza. *Euskal kirol selekzioa: futbolaren kasua* izenburuko mahai-ingurua izango da Miguel Altunako aretoan, 18:30ean. Javier Clemente entrenatzaileak, Juan Luis Larrea Gipuzkoako Futbol Federazioko presidentek eta Iñaki De Mujika kazetariak hartuko dute parte. Ekitaldiekin jarraituz, azaroaren 26an, *Mendeurren baten gogoetak* izenburuko hitzaldia egingo du Iñaki Anasagastik. Esan bezala, abenduaren 12an 100 urte beteko dira Bergaran Batzokia zabaldu zutenetik. Batzokiaren historia biltzen duen liburua idatzi du Juan Luis Bikuña kazetariak. *Begarako Batzokia: 100 urte* izenburuko liburua abenduaren 2an aurkeztuko dute. /E.M.

## ARAMAIO

### Ura eta zabor bilketa igoko dira gehien datorren urteko zergetan

Astelehenean deitutako ezohiko bileran erabaki dituzte datorren urtean aplikatuko diren zergen igoerak. Ur hornidura eta zabor bilketaren gainekoak izango dira igoerarik nabarmenenak. Hobari edo bonifikazioei dagokienez, aurtengoak izango dira.

Aipatzekoa da Aramaion aurtengo jardunaldiari dagokionez ez dela iaiztik zerga igoerarik egon. Izan ere, iaiz ez zuten garaiz prestatu aurrean indarrean ipintzekoa zen zergen txosten ekonomikoa, eta ondorioz ez zen benetako igoerarik egon. /I.B.

## ELGETA

### Txingorrak pinuetan egindako kalteen gaineko bilera astelehenean

Uztaileko txingor zaparradak herriko pinudietan eragindako kalteak aztertzen jardun dute adituek, eta ikerketaren ostean, emaitzak jendaurrean azalduko dituzte. Horretarako bilera egingo dute astelehenean 19:00etan udal-etxearen areto nagusian. Diru-laguntzen gaineko zehaztasunak eta hauek jasotzeko eman beharreko pausoak jakinaraziko zaizkie kaltetuei. Bileran izango dira Aimar Saez de Buruaga Foru Aldundiko teknikaria eta Mikel Azkarate basozaina. /I.A.

## ARETXABALETA

### Aretxak erabakitze gaitasuna izan dezala nahi du Aralarrek

Mozioa aurkeztu du Aralar alderdiak Aretxabaleta Udaletxean, legez kanpo dagoen Aretxa Aurrera plataformaren egoerari irtenbidea eman behar zaiola eskatuz. Aldeko konpromisoa hartzeko eskatzen diete mozioan gainontzeko alderdiei. Baina gainera, proposamen bat ere egin dute, Aretxa Aurrerako ordezkarien iritzia osoko bilkuretan isla izan dezan.

Mozioa oraindik ez da Udaletxean aztertu, baina proposamenaren berri badute dagoeneko EAJ eta Aretxa Aurrerako kideek. Udal kontseilu bat abian jarri, kontseilu horretan legez kanpo dagoen plataformako ordezkariari erabakitze gaitasuna eman, eta bertan hartutako erabakiak osoko bilkuretan ofizial egitea proposatu dute Aralarroek.

#### ARETXA-KOAK BILKURAN

Joan den astelehenean egin zen osoko bilkuran, bestealde, bizi duten bazterke-

ria salatu zuten Aretxa Aurrera herri plataformako hainbat lagunek. *Aretxa Aurrera* eta *Herriaren hitza errespetatu* zioten orriak eskuetan, osoko bilkuran agertu, eta legez kanpo dauenetik bizi duten "aparteid politikoa" salatu nahi izan zuten. Osoko bilkura bukatu zenean, idatzi bat irakurri zuten. Zinegotzi batzuei dagozkien aulkiak ez dagozkiela, eta kargua uzteko eskatu zieten. Kargurik hartu ez zutenei, berriz, tokia euren uzteko ahalegina egiteko eskatu zieten. Euren ustez, badira konponbiderako bideak. /MARIA AGIRRE

#### Zertzelada

**Aralar alderdiak mozio bat aurkeztu du, eta gainera proposamen bat egin dute Aretxa Aurrerakoek erabakitze gaitasuna izan dezaten**

## ARRASATE

### Genero indarkeriaren aurkako herri plataforma sortu dute

Martitzenean aurkeztu zuten prentsaurrekoan emakumeen aurkako tratutzarrak salatze herri plataforma. Herriarrek eta hainbat partidu politikotako ordezkariak osatzen dute taldea, baina esparru guztietako emakume eta gizonei egin diete batzeko dei. Emakumeen aurkako tratutzarren arazoaren

gainean kontzientziaztea da plataformaren helburua, baina gizartea oso-oso inplikatu duen ikuspegitik. Taldearendako hurrengo deialdi garrantzitsua hilaren 25a izango da, emakumeen tratutzarren aurkako nazioarteko eguna da-eta. Egun horretan kontzentrazioa egingo dute. /I.B.



JON BEREZIBAR

Gizarteko hainbat esparrutako jendeak osatzen du plataforma.

## OÑATI

### Nagusien Astea ospatuko dute domekatik aurrera San Martin egoitzan

San Martin egoitzak Nagusien Astea antolatu du. Domekan hasita musikaz, naturaz, elkarretaratzeez eta bestelako ekitaldiez gozatu ahal izango dute San Martin egoitzako bizilagunek eta euren senitar-tekoek. Aurten berritasun bat ere badute: Aloña Mendiko Espeleologia sailak koben gaineko ikus-entzuzko eskainiko du.

Aloña Mendik, Natur Eskolak, Ganbara Abesbatzak eta Bertso Eskolak hartuko dute parte, besteak beste, Nagusien Astea. Bizilagunek plater bereziak dastatuko dituzte. /O.E.

## ESKORATZA

### Bihar hasiko dira euskaraz jolasten ikasteko bi ikastaroak

Euskaraz jolasten ikasteko ikastaroa hasiko da bihar. Bi ikastaro antolatu ditu Udalak. Guraso eta haurrei zuzendutakoa bate-tik; guraso, aisialdiko hezitzaile eta irakasleei zuzendutakoa bestetik. 10:30ean hasiko dira biak eta 12:30ean amaitu. Eskoriatzako pilotalekuan elkartuko dira, eta besteak beste, zozketa, sokasalto, mimika eta trebetasun jolasak ikasiko dituzte; guztiak euskaraz izango dira. Kantuak ere erakutsiko zaizkie bihar eta datozen bi zapatuetan izango den ikastaroan izena eman dutenei. /Z.V.M.

## GATZAGA

### Hamabost artisauk hartuko dute parte domekan San Milixan azokan

Domekan ospatuko dute gatzagarrek San Milixan feria. Hamabigarren aldiz antolatu dute azoka. Hamabost artisauk euren lanak jarriko dituzte erakusgai pilotalekuan 10:00etatik aurrera. Goiz eta arratsalde egongo dira artisauak bertan, bazkalorduan salbu. Askotariko gaiak egongo dira ikusgai. Besteak beste, sendabelarrak, zilareez egindako bitxiak, euskal jantzi tradizionalak eta maketak lantzea. Trikitilari-riek giroa alaituko dute eta Sorginak emakume taldeak taloak egingo ditu. /Z.V.M.

*Jose Antonio Ajuria*

LAGUN AROKO PRESIDENTEA

**“Osakidetzara pasatzea administrazioak erabaki du, ez da Lagun Aroren nahia”**

Azken urteetan entzun diren zurrumurruak egi bihurtu dira: Lagun Aroren laguntza prestazioa Osakidetzara pasako da datozen hiru urteetan. Aldaketa gutxika egingo dute eta prozesuak onuradunari nola eta zenbateraino eragingo dion galdetu diogu Jose Antonio Ajuria Lagun Aroko presidenteari. Debagoienean 14.436 onuraduni eragingo die aldaketak.

OIHANA ELORTZA

**Zergatik pasako dira Lagun Aroko onuradunak Osakidetzara?**


Lagun Aro hedadura mistoa duen sistema da. Hau da: Lagun Aroko mutualistek egiten dituzten kotizazioak eta prestazioak Lagun Aro enpresari berari eta Gizarte Segurantzari egiten dizkiote, azken honi langile autonomoen egoera berezian. Prestazioak ere bi aldeetatik jasotzen ditu. Beraz, bai eskaintza pribaturako bai publikorako kotizatzen dute.

**Eta zer gertatu da?**

Pribatutik publikora pasatze administrazioaren erabakia izan da.

1984 urtera arte hautazkoa zen kotizatzea osasun zerbitzu publikoan langile autonomo bezala, nahi zuenak egiten zuen bakarrik eta Lagun Aroko mutualistok erabaki genuen ez kotizatzea osasun laguntza publikoan. Baina 1984an aldatu egin zen hori. Urte horretan derrigortu egin zuten autonomoen kotizazioa. Lagun Arok, hala ere, bere osasun prestazioa eskaintzen jarraitu nahi zuen eta Gizarte Segurantzarekin akordioa egin ondoren, osasun zerbitzua eskaintzen jarraitu genuen. Zerbitzu hau finantzatzeko administrazioak kotizazioak jaitsi zizkigun.

Toledoko Paktua sinatu zuten erabaki zuten osasun zerbitzua bezalako atal batzuk estatuaren aurrekontuen zakuan sar-



OIHANA ELORTZA

tzea. Beraz, 1998tik aurrera, Estatu Osasun Ministerioak konpentsazio ekonomikoa eskaini zion Lagun Aro honi bere osasun zerbitzu propioa eskaintzen jarrai zezan. Ez Lagun Aro bakarrik, baita Telefonicari, Onceri, argindar enpresei, banketxe handiei eta bestelako entitate garrantzitsuei.

**Noiz arte?**

Osasun zerbitzuaren gestioa eta finantziarioa Estatuko administrazioetik Autonomia erkidegoetara pasatzen da 2002 urtean. Kolaborazio horren jarraipena, beraz, autonomia erkidegoko

administrazioen esku gelditu zen. Autonomia gehienek kolaborazioarekin ez jarraitzea erabaki zuten eta horixe gertatu da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarekin ere, kolaborazioa etetea erabaki duela. Nafarroako Gobernuak, esaterako, 2003an eten zuen lankidetzaz.

**Noiz erabaki zuen hori Jaurlaritzak?**

Lehen bezala jarraitzeko eskatzeko negoziatioek bi urte iraun dute, baina aurtengo uztailan hartu zuen hemengo administrazioak kolaborazioa bertan behera uzteko erabakia.

**Zenbat lagun pasako dira Lagun Arotik Osakidetzara osasun laguntza prestazioan?**

Euskal Autonomia Erkidegoan, 47.418 lagun. Kopuru honetan onuradun guztiak sartzen dira, bai bazkideak baita bazkideen zuzeneko senitartekoak ere.

Gipuzkoan, 27.246 lagun pasako dira eta Debagoienean, 14.436 onuradun. Erdiak baino gehiago dira mutualistak.

**Nola egingo da batetik besterako aldaketa?**

Aldaketa fasetan egingo da, pausoka, eta osasun atalen arabera egingo dugu.

2005eko urtarrilaren leian, familia-mediku eta botika zerbitzuak transferituko dira. Gainerako atalak eta beste zerbitzu batzuek hiru urteetan zehar transferituko dira. Ordurako gelditzen dira mediku espezialisten zerbitzua eta ingresu zerbitzua. Baina hori gertatu arte, hiru urte horiek pasatu arte, Jaurlaritzak finantzatu egin behar gaitu geuk geure zerbitzua gestionatzeko, orain arte estatuko administrazioak egin duen bezala.

Litekeena da tarte horretan atal batzuek beste batzuek baino lehenago integratzea Osakide-



## KOTIZAZIOAK ETA PRESTAZIOAK

**“Lagun Aroko mutualistek egin dituzten kotizazioak eta prestazioak Lagun Aro enpresari berari eta Gizarte Segurantzari egin dizkiote, beti. Prestazioekin ere berdin”**

## LAGUN AROK BERDIN JARRAITUKO DU

**“Osasun zerbitzuaz gain erretiroan, alarguntasunean, aldi baterako ezintasunean eta langabezian ere laguntzen du Lagun Arok eta horrelaxe jarraituko du aurrerantzean ere”**

tzan, baina hori urtero hitzartu behar den gaia da, datorrenean aplikatzeko. Hala ere, ez dugu uste aldaketa handirik egongo direnik epea heldu baino lehen.

**Nola eragingo dio aldaketa honek Lagun Aroko onuradunari?**

Egia esan, oso gutxi. Hasiarako fasean, familia-medikua eta botikak Osakidetzaren bidez lortuko dituzte eta epea bete arte, eurek nahi duten espezialistarengana eta nahi duten klinikara joan ahal izango dira, orain arte bezalaxe.

Errezetak, bajak, ordutegiak, espezialistengana joateko egin behar diren tramiteak eta bestelako gai batzuk Osakidetzarekin batera ari gara orain negoziatzen. Bion artean erabakiko dugu zein izango den bide hoberena eta zuzenena. Izan ere, aldaketak ahalik eta gutxien eragitea da helburua. Are gehiago, adostuta

dago aldaketak ahalik eta gutxien izatea.

**Azaldu zaie onuraduneri aldaketak nola eta noiz eragingo dien?**

Esan bezala gai batzuk lotzeko ditugu oraindik baina horiek argitu bezain pronto, mutualista bakoitzari erabaki hauen berri emango diegu, banan-banan.

**Eta nola eragingo die erretiratuei?**

Orain arte bezala jarraituko dute. Erretiratu guztiek dute eskubidea osasun zerbitzu publikoa izateko. Eurek nahi izanez gero, onuradun bereziak izateko aukera dute Lagun Aroekin. Honek esan nahi du Lagun Aroren osasun zerbitzuak erabili ahal dituztela kuota ordaintzen badute. Gero ere berdin jarraituko dute familia-medikuen kontuan izan ezik. Onuradun bereziaren figurarekin jarraitzeko planteamendua etorkizunean ere

**“Lagun Aro ez da osasun zerbitzua bakarrik, eta orain arte bezala jarraituko du”**

**Kotizazioen gaia argitu nahi duzula diozu.**

Bai. Lehenik argitu nahi dut Lagun Aroari kotizatu arren, beti kotizatu izan diogula Gizarte Segurantzaren sistema publikoari autonomoen erregimen bereziaren bidez.

Eta azaldu nahi dut osasun zerbitzu publikoak eta kotizazioak ez dutela lotura zuzenik. Hau da: kotizatzen ez duenak ere badu osasun zerbitzu publikoa izateko eskubidea. Zerbitzu hori hiritarrok zergak ordaintzen ditugulako eskaintzen digute, ez kotizatu egiten dugulako. Kanpotik datorren etorkin batek ere badu osasun zerbitzu publikoa izateko eskubidea. Beraz, zergen bitartez, aurrekontu orokorren barruan sartzen dute zerbitzu hori eta hiritar guztiok dugu jasotzeko eskubidea, kotizatzen dugun edo ez kontuan hartu barik.

**Zertan geldituko da orain Lagun Aro, oro har?**

Askok osasun zerbitzuarekin lotzen dute bakarrik Lagun Aro eta badirudi behin Osakidetzara pasatuz gero, desagertu egingo dela Lagun Aro. Baina hori ez da horrela. Osasun zerbitzuaz gain beste hainbat zer-

bitzu ere eskaintzen ditu Lagun Arok eta aurrerantzean ere berdin jarraituko du. Adibidez, erretiroa, alarguntasuna, aldi baterako ezintasuna, langabezia eta beste hainbat ataletan ere laguntzen du, ez soilik osasun zerbitzuan. Aldaketa hau guztiz gauzatzen denean, ez du osasun zerbitzua eskainiko, baina bai gainerako guztiak, orain arte bezala.

Badakit lehendabiziko lotura osasunarekin, mediku espezialistekin egiten duela jendeak, baina atal hori baino gehiago ere eskaintzen du Lagun Arok eta hori argitzea ere komeni da, bai.

## ALDAKETAREN ERAGINA ONURADUNENGAN

**“Aldaketa pausoka egingo da hiru urtean zehar baina adostuta dago ahalik eta gutxien izatea. Mutualista bakoitzari erabaki hauen berri emango diegu banan-banan”**

## ERRETIRATUEN EGOERA

**“Orain arte bezala jarraituko dute. Nahi izanez gero onuradun bereziak izateko aukera dute Lagun Aroekin; horrek esan nahi du bere zerbitzuak erabili ahal dituztela kuota ordainduz”**


mantenduko egingo da eta erretiratu berriek ere aukera eskura izango dute.

**Zein da zuen balorazioa?**

Ezingo dugu ona denik esan. Gu saiatu gara beti ahalik eta onura gehien eskaintzen

mutualistei eta euren senitar-teko zuzenei. Orain, administrazioaren erabakia dela-eta, Osakidetzara pasatuko gara baina ahalik eta aldaketa onena egiten saiaturako gara. Uztailen hartu zuen Jaurlaritzak osa-

sun zerbitzua transferitzeko erabakia eta ordutik hona gai eta atal guztiak negoziatzen ari gara, integrazioa ahalik eta ondoen egin dadin. Azken emaitza ona izango dela espero dugu guztiok.



## Debagoieneko eskubaloia

Eskubaloi taldeen GEHIGARRIA azaroaren 15ean Asteleheneko Goienkarian

Taldeen argazkiak jokalarien izen-abizenekin • Erreportajeak • Iritziak

Asteleheneko Goienkaria  
GEHIGARRIAK Gorde egingo dituzu.

HURRENGO GEHIGARRIAK: Azaroaren 22an saskibaloi taldeak • Azaroaren 29an pilotariak

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51  
Astelehenetik  
egubakoitzera,  
09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

# Behobia-Donostia, errekor guztiak apurtzen

Parte-hartzeari dagokionez, aurten errekorra hautsi dute; ibarretik ere inoiz baino lagun gehiago joango dira

XABIER URZELAI

**D**omekan, 11.500 lagunek hartuko dute esku Behobia-Donostia maratoi erdian. Orain arte egin duten proba jendetsuena izango da, eta hala ere, asko izan dira dortsal barik geratu direnak. Ibarrean ere inoiz baino jende gehiagok hartuko du esku domekako proban.

Zifrei kasu egiten badiegu, argi dago Behobia-Donostia urtetik urtera hazten dabilela. Parte-hartzaileei dagokionez, inoiz baino lasterkari gehiago izango dira proban, 11.500 lagun guztira. Horrez gain, inoiz baino korrikalari gehiagok eman dute izena Internet bidez (600 izenemate). Eta ibarrean ere badugu errekorrik, inoiz baino debagoiendar gehiago izango dira eta proban, 700 lagun inguru.

Aurtengo berritasunei dagokionez, badirudi txipa aurrekoetan baino fidagarriagoa izango

dela. Horrez gain, antolatzaileek goitik behera aldatu dute sailkapenak egin ahal izateko sistema. Hala, Fortunakoek esan digute proba amaitu eta bi ordu geroago sailkapena Interneten egongo dela, [www.behobia-sansebastian.com](http://www.behobia-sansebastian.com) helbidean. Interneten begiratzeko aukera ez daukazuena, jakin ezazue, *Asteleheneko Goienkaria*-k zabal landuko duela domekako proba: sailkapenak, ibarreko azkarrenak, argazkiak...

## IBILBIDEAN ALDAKETARIK EZ

Aurreko edizioetan, ibilbidean hainbat aldaketa egin izan dituzte. Oraingoan, baina, ez da horrelakorik izango. Gaintzurizketa eta Miracruz gainak dira zailtasun apur bat daukatena. Zortzigarren kilometroan lehena, eta 17. kilometroan bigarrena. Horrez gain, kontuan izan 20 kilometroko proba dela, eta distantzia horietara ohitua ez dagoenak hobe du poliki-poliki joan eta azken metro-



GOIENKARIA

Korrikalariak ezin dute laguntailerik izan. Elbarrituak dira salbuespena.

etarako indarrak gorde. Hogei kilometroko ibilbidean bost gune izango dira jatekoekin eta edatekoekin, eta antolatzaileen helburuetako bat da lehenengo gunean jendea ez pilatzea.

## ASTEBURURAKO HAINBAT GOMENDIO

Domekako probarako egun bat baino ez da geratzen, eta dagoeneko ez dago gehiago entrenatzerik. Interneten hainbat gomendio aurkitu ditugu domekako probarako: zapatua deskantsatzeko aprobetxatu, ondo entrenatu ez denak dagoeneko ez du ezer egiterik; domeka goizean ondo gosaldtu, baina proba hasi baino hiru ordu lehenago, eta ez dadila gosari astuna izan; proba hasitakoan komeni da gutxika-gutxika hidratatzea, eta baita zerbait jatea ere (barra txo energetikoak); ez da komeni, baina, korrikaldian zehar produktu berriak probatzen ibiltzea, urdaila ez dago-eta ohituta. Eta, helmugan ere, jan eta edan ondo.



**RITXAR FERNANDEZ**

OÑATI


**E**gin duen entrenamenduaren arabera, domekan oso indartsu egon beharko luke oñatiarrak. Sasoi betean dago, eta oso motibatuta. Joan den urtean gutxiatik ez zen podiumean izan, eta hori izango du domekan helburu.



**OLATZ DORRONSORO**

ARRASATE

**L**ehenengo aldiz parte hartuko du; ondo amaitzea eta probarekin gozatzea ditu helburu. Maiatzean hasi zen mutil-lagunarekin batera korrika egiten, baina irailtik aurrera hasi da gogorrago entrenatzen.



**FERNANDO URIBESALGO**

ARETXABAETA

**A**urten oso gutxi entrenatu du, ezer gutxi egin duela dio, baina Donostiako maratoina joateko asmoa ere badauka: "Urte asko dira korrika egiten, eta bai Behobiara eta baita maratoina ere lasai-lasai joango naiz, egunaz gozatzeraz".



**MARI FRAN ALONSO**

ARRASATE

**B**adaki Behobia-Donostian Arrasateko emakumezko azkarrena izatea zer den. 1:31:00ko denbora da egin duen onena, baina minutu bat gutxiago egin behar du dortsal berdea eskuratu ahal izateko. Hori da bere helburua.



**JON LOPEZ**

ARRASATE

**B**adira urte batzuk Arrasateko koadrila batek herriko presoek izenean korrika egiten duela, eta aurten ere horrela egingo du Jonek. Ondo prestatu du domekako proba, baina urtero moduan, lasai ibiliko da.

## SAN MILIXANAK 2004

Azaroaren 14an, domeka




*Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!*

- Lore lehorrak eta xaboi naturalak
- Zapata artisautza
- Beira puztua-modelatua
- Urkitza tailerra
- Produktu biologikoak
- Sendabelarrak
- Ehun diseinatzailea
- Esmalteak
- Zilarrezko bitxiak
- Aloe Vera
- Euskal jantzi tradizionalak
- Larru tailerra
- Buztingintza tradizionala
- Maketak-tailatzea
- Eskuz margotutako arropa



LEINTZ GATZAGAKO  
UDALA





## **Domekako Behobia-Donostia**

## **Asteleheneko Goienkarian**

Debagoieneko antxintxikalarien gaineko erreportaje zabala azaroaren 15ean: kronika, sailkapenak, argazkiak, iritziak eta abar.

Zoaz antxintxika kioskora Asteleheneko Goienkaria eroatera edo egin zaitez harpidedun!

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

# DANBAKA

DEBAGOIENEN K O I . M U S I K A L E H I A K E T A

## SARRERAK

Kontzertuetara joan nahi baduzu,



bidez gauzak erraztuko zaizkizu.

**Gaztekutxa**ko txartela daukatenek hiru euro balio duen sarrera euro bakarrean eskuratu ahal izango dute (kontzertu bakoitzeko lehenengo bi sarrerak). Horretarako, sartu [www.gaztekutxa.net](http://www.gaztekutxa.net) helbidean edo [www.goiena.net](http://www.goiena.net)-en, eta eskuratu sarrerak merke.

Gaztekutxa txartelik ez daukazula? Ba zure herriko Kutxako edozein bulegotara gerturatu, eskatu zure **Gaztekutxa** txartela (ez duzu ezer ordaindu beharko) eta gainera hurrengo kontzerturako bi sarrera oparituko dizkizu Kutxak.

### Gaztekutxa bitartez

- Kontzertu bakoitzeko euro 1
- 6 kontzertuetarako abonua 6 euro

### Prezioak Espaloian

- Kontzertu bakoitzeko 3 euro
- 6 kontzertuetarako abonua 15 euro

## KONTZERTUA

Elgetako  
Espaloia Kafe Antzokian  
Azaroaren 19an (barikua)  
22:30

# Isarevolution

(Arrasate)

# Muted

(Arrasate-Abadiño)

# Izas

(Elgeta)

# Malenkonia

(Oñati)

## SMS MEZUAK

Gustukoen duzun talde, bakarleri edo abestiari lagunduz, zuk ere saria irabazi!

Aldeko SMS gehien jasotzen dituen partaideak Danbaka lehiaketako Entzulearen Saria irabaziko du, eta mezu-bidaltzaile guztien artean honako opari hauek banatuko ditugu:

- 2 lagunendako afari bat Espaloian.
- 10 erosketa-txartel Ganeshan (30 eurokoa bakoitza).
- 6 matrikula Irudi Sport gimnasioan.
- 6 ile mozketa + Manikura Spa + Pedikura Spa, Zirt-Zart ileapaindegian.
- [www.istilu.com](http://www.istilu.com)-ek emanda:

- 10 "Euskal zapi"
- Mutilendako 3 txapel
- Neskendako 3 tanga.
- 3 galtzontzilo
- Neskendako 10 kamiseta.
- Mutilendako 10 kamiseta.
- 3 galtzerdi pare

Zenbat eta mezu gehiago, irabazteko aukera handiagoa!

**Mezuak bidaltzeko jarri: DANBAKA (tartea) PARTAIDEAREN IZENA eta bidali 7744 zenbakira.**

Mezu bakoitzaren kostua 0,9+BEZa.

Taldearen izenak:

- |                |               |                |
|----------------|---------------|----------------|
| -Amonal        | -Jim TNT      | -Ostiada Oi!   |
| -Denial        | -Los Cretinos | -Ozen          |
| -Dixie 900     | -Malenkonia   | -Potemkin      |
| -Enboskada     | -Matxura      | -Sharon Stoner |
| -Isarevolution | -Muted        | -Stukas        |
| -Izaskun       | -N_Oph        | -Supercools    |
| -Ojanguren     | -Neure Baitan | -Turboamor     |



GOIENKARIA

Goiena.net  
Debagoieneko ataria Interneten

Carrión música

KAFE ANTZOKIA  
Espaloia  
ELGETA

Goitb  
Goiena Telebista

M  
MEMESA  
INDUSTRIA HORNDURAK

JAKINA  
SUKALDEAK • BAINU GELAK  
KERAMIKAK

GANESHA  
TATTOO  
BODY SHOPS  
PIERCING

ARRASATE  
IRRATIA

GOIESKOLA

MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

GOIENKARIA



Elgetako  
Udala

IZAS

IRUDI  
SPORT

# Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko azaroaren 12a

Kultura  
eta  
aisialdia



Azaroaren  
12tik 19ra



## MODA METROAK

ARIZMENDI IKASTOLAK KILOMETROAK 2005EKO TXUPINAZOA IBILTOKIAREN GAINEAN JAURTIKO DU

Imajinatzen duzue Juan Martin Elexpuru koloretako galtzerdiekin desfilatzen? Eta Joseba Beloki txirrindularia pontxo laranja bat jantzita? Eta zein arropa eramango dute matematikako irakasleak eta Amaiaren amak? Hobeto edo traketsago, baina Arizmendi ikastolako guraso, ikasle, irakasle eta famatu asko modeloen pare arituko dira gaur, egubakoitza,

Eskoriatzako kiroldegian. Moda desfilea egingo dute eta horixe izango da Kilometroak 2005 festako txupinazoa. Lotsa alde batera utzi eta Kilometroak 05eko arropa erakusteko desfilatuko dute ibiltokiaren gainean. Ez dira nikiekin bakarrik aterako, ordea. Jertseak, prakak, poltsak eta galtzerdiak ere erakutsiko dituzte; zapatak ez, gainontzeko arropa guztia.

### PRENTSAURREKOA DONOSTIAN

Iluntzeko 19:00etan hasiko da moda desfile kurioso hau modako arropa eta modeloekin. Eguerdian, bestalde, Kilometroak 2005 festa Euskal Herri osoari aurkezteko prentsaurrekoa egin dute Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean. *Plazara!* leloa eta logotipoa Euskal Herri osora zabaldu dute. /14/OIHANA ELORTZA

KILOMETROAK 2005/ MODA DESFILEA EGINGO DUTE ARROPA AURKEZTEKO

# Kilometroak jantzi eta atera plazara

2005EKO URRIAREN 2AN EGINGO DIRA KILOMETROAK LEINTZ BAILARAN, ETA GAUR, TXUPINAZOA BOTAKO DUTE ESKORIATZAN

OIHANA ELORTZA

**M**odelo ezin hobekak aukeratu dituzte Kilometroak festako arropa aurkezteko. Ibiltoki gainean desfilatuko dute Arizmendi ikastolako gurasoek, ikasleek, irakasleek eta baita famatu askok ere. Datorren astean kalera aterako dituzte arropak, plazara.

Andoni Zubizarreta, Joseba Beloki, Anjel Alkain, Maider Egues, Asier Aranguren, Juan Martin Elexpuru eta Aitor Elkoro modelo lanetan ibiliko dira gaur, egubakoitza, iluntzean. Datorren urteko Kilometroak festako arropa erakutsiko dute guztiek Eskoriatzako kiroldegian, 19:00etan. Eta horiekin batera, Arizmendiko ikasleak, irakasleak eta gurasoak: 140 modelo baino gehiago guztira. Urteko sasoi honetako arropa erakutsiko dute desfilean: udazken eta neguko arropa. Hau ez da, ordea, Kilometroak 05 festak aterako duen arropa bakarra. Martxo aldera, udaberri eta udako arropa ekarriko dute.

## ZAPATAK BAKARRIK FALTA

Beso luzeko eta motzeko nikiez gain, arropa asko atera dute: prakak, jertseak, gonak, galtzerdiak, ilarako zintak, txaketak, poltsak eta gehiago. Mari Jose Beloki da arropa erostean arduratzen dena eta berak esan duen bezala, "zapatak bakarrik falta dira, leporako bitxiak ere baditugu-eta". "Zapatak ekartzea, ordea, beste merkatu batean sartzeko da eta oraingoz, behintzat, ez dugu horrela-

koetan sartzeko asmorik", gaineratu du.

Duela sei hilabete egin zuen Mari Josek arroparen eskaera eta orain egun batzuk iritsi ziren kaxak Arrasatera. Hango lokal bat biltegi inprobisatu batean bihurtu dute eta hantxe ari da lantalde bat arropa guztia kaxetatik atera, ondo tolestu eta etiketatzen, prezioak eta neurriak jartzen. Boluntario talde hau ere zeharo harrিতa gelditu da jaso duten arropa kantitateaz eta, batez ere, aukera ezberdinez. Bestelako denda bat dirudiela esaten diote bata besteari eta pozik dabilta biltegia antolatzen, eurendako eta baita seme-alabendako ere arropak aukeratzen.

## KILOMETROAK DENDAK

Kilometroak 05 festaren txupinazoa egingo dute iluntzean.

Eskoriatzian egingo duten desfilean arropa guztia erakutsiko dute eta horixe da gero dendetan salgai egongo den arropa. Leintz bailarako hiru herrietan denda bana jarriko dute Kilometroak festako arropa saltzeko.

Aretxabaletan Durana kalean zabalduko dute, Gurea tabernaren ondoan. Arrasaten Ferrerías kalean jarriko dute, Tamayo paper dendaren parean eta Eskoriatzian, berriz, Arana kalean zabalduko dute, udaletxearen parean. Dendak egokitzen eta arropaz betetzen ari dira egunotan eta arazorik sortzen ez bada, datorren astean bertan zabalduko dituzte Aretxabaleta eta Arrasateko dendak. Eskoriatzako ere laster irekiko dute.



Arropak zenbatzen eta prezioak jartzen ari da egunotan lantalde bat Arrasateko biltegi inprobisatuan.



**MARI JOSE BELOKI / ARROPEN ARDURADUNA**

*"Nikien diseinua eksklusiboa da eta Kilometroetarako egiten dituzte soilik"*

**S**eigarren Kilometroak izango dira hurrengoak Mari Jose Belokirendako. Seigarren urtez arduratu da Kilometroak festarako arropa aukeratzeaz.

## Non aukeratzen dituzu arropak?

Bartzelona eta Madrilgo desfileetara joaten naiz batik bat eta saiatzen naiz moda jarraitzen, modan dauden arropa zein koloreak ekartzen. Hala ere, produkzioan ere sartu naiz eta nikien diseinua Kilometroetarako eksklusiboa egitea lortu dut.

**Gero eta arropa gehiago ekartzen duzue.**

Arropaz gain, gainera, baditugu osagarriak ere: lepokoak, bufandak eta poltsak, adibidez. Zapatak bakarrik falta zaizkigu. Hain arropa polita eta ezberdina ikusten duzu, zaila izaten da gero nikiekin bakarrik bueltatzea.

## Neurri handiak ere badituzue?

Haur, gazte zein helduendako arropa ekarri dute aurten ere. Neurriena, ordea, konpondu ezin dugun arazoa da. Arropa etxeek ez dute neurri handirik egiten, nahiz eta hasi diren arropa handiagoak egiten. Tamalez, etxe handien menpe gaude atal horretan baina, hala ere, ekarri ditugu niki handiak ere.

## Nadal Studio irudi bat eskura dezakezu!

Rafa Oparietako **hileko bezero onenak** Nadal Studio markako irudi bat jasoko du.

Artisau-lanak dira.  
**50 eurotik 120 eurorainoko prezioa dute.**

**Abenduan, hiru bezero onenek** irudi bana jasoko dute.

- Txartelak metagarriak dira.
  - Oinarriak eta irudiak dendan bertan daude.
- Zatoz! Opari finagorik ez duzu topatuko!**



*Rafa*

**RAFA OPARIK**  
Eroski merkataritza etxea, 3. lokala  
Telefona: 943 79 76 03

MUSIKA/ DEBAGOIENeko I. MUSIKA LEHIAKETA

# Sentimendua eta zirrarara

DEATH METAL MELODIKOA, FOLKA, 80KO POPA ETA ROCK KONPROMETITUA, DANBAKAKO BIGARREN SAIOAN



## DENIAL / ARRASATE-ARETXABALETA

Musika estilo gogorra dute eta zuzeneko indartsua erakutsi zuten egubakoitzean. Death metal melodikoaren generoan zeresan handia izango du Denial-ek. Abeslariak ondo egokitu zuen ahotsa estilora: urratua eta sakona eta arlo instrumentala borobil landu zuten.



## NEURE BAITAN / ARRASATE

Urduri egon ziren Koldo Altuna abeslari eta gitarra-jolea eta bere musikariak (biolin jotzailea eta soinu jotzailea). Horrek saioa zapuztu zuen guztiz. Errepertorio polita zuen, hala ere, euskal eta zeltar folk ukituko balada intimistekin. Igartzen zitzairen hirurak batera sarritan ibiliak ez zirela.



## DIXIE 900 / BERGARA

Arlo instrumentala, abestiak, letrak... primerakoak; ilunak, sentimendu handikoak, erakargarriak, 80ko hamarkadako pop ukituko taldeen tankerakoa. Baina bi abeslariak motel ibili ziren eta eszenaratzean ere ez zuten asmatu. Horrek galarratzen zuen taldeak bere benetako maila erakustea.



## ENBOSKADA / ARRASATE

Kemena, gaztetasuna, freskotasuna... eta euren zale mordoekin ondo pasatzeko gogoia zerien, eta bukaera gozagarria ipini zioten gauari, kafe antzokia gaztetxe bihurtuta. Naturaltasunak eta euren arteko elkar-uletzeak lagundu zieten soinu arazoei edo urduritasunari modu onean aurre egiten.

## Publikoaren Saria

Jendeak aukeratuko du ikuslearen saria. Hemen, orain arteko sailkapena. Bidali mezuak: danbaka [laga tartea] taldearen izena eta bidali 7744 zenbakira. SMSaren kostua 0,90 euro+BEZ

- 1 **ENBOSKADA**  
ARRASATE  
Botoen %28,3
- 2 **DENIAL**  
ARRASATE-ARETXABALETA  
Botoen %17,5
- 3 **STUKAS**  
BERGARA  
Botoen %9
- 4 **OZEN**  
ARRASATE  
Botoen %7,6
- 5 **POTEMKIN**  
ONATI  
Botoen %7,6
- 6 **JIM TNT**  
ARRASATE  
Botoen %6,9
- 7 **AMONAL**  
ONATI  
Botoen %4,9
- 8 **MALENKONIA**  
ONATI  
Botoen %3,6
- 9 **MATXURA**  
ELGETA-SORALUZE  
Botoen %3
- 10 **SHARON STONER**  
ONATI  
Botoen %2,5
- 11 **ISAREVOLUTION**  
ARRASATE-ESKORIATZA  
Botoen %2,5
- 12 **DIXIE 900**  
BERGARA  
Botoen %2,4
- 13 **LOS CRETINOS**  
ARRASATE  
Botoen %1,6
- 14 **OSTIADA OI!**  
ELGETA-ARRASATE-BERGARA  
Botoen %0,9
- 15 **IZAS**  
ELGETA  
Botoen %0,3
- 16 **N\_OPH**  
ARRASATE  
Botoen %0,3
- 17 **SUPERCOOLS**  
BERGARA  
Botoen %0,3
- 18 **TURBOAMOR**  
ARRASATE  
Botoen %0,3
- 19 **NEURE BAITAN**  
ARRASATE  
Botoen %0
- 20 **MUTED**  
ARRASATE  
Botoen %0

**DANBAKA** ))))  
DEBAGOIENeko I. MUSIKA LEHIAKETA

## ASTELEHENeko GOIENKARIAn!

Danbaka-ko kontzertuen gaineko **informazio guztia** ASTELEHENeko GOIENKARIAn: kronikak, kritikak, iritziak, inkestak, taldeen inpresioak, argazkiak... Eta baita ikuslearen sariaren gaineko sailkapen eguneratua.

Hori guztia eta gehiago... ASTELEHENeko GOIENKARIAn.

**Erosi ASTELEHENeko GOIENKARIA edo egin zaituzte harpidedun!**



# Azaroak 12-19

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Dibortzioaren lege berriaren gaineko** hitzaldia egingo dute Mainer Morras eta Larraitz Ugarte abokatuek egunean, hilak 18, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

### ARRASATE

► **Bidezko merkataritzako produktuen dastatzea** antolatu du Harreman GKEk biharko, zapatua, Hiper Eroskiko euren saltokian.

► **Donostiara bidaia kulturala** hilaren 27ra, zapatua, atzeratu du Emakume Txokoak. Zientziaren Museoa eta Aquariuma bisitatuko dituzte. Argibideak, 943 79 41 39 telefonoan.

### BERGARA

► **Euskadiko kirol selekzioen gaineko** mahai ingurua egingo dute Juan Luis Larrea, Javier Clemente eta Iñaki de Mujikak gaur, egubakoitza, Miguel Altuna Institutuan, 19:30ean.

► **Euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen** aldeko sinadurak bilduko dituzte bihar, zapatua, egun osoan, Herriko plazan, azokan eta zenbait kaletan.

► **Txapa Irratiaren 20. urteurrena dela eta**, honako ekintzak antolatu dituzte: hilaren 15ean, astelehena, Irratiko historikoekin tertulia; martitzenean, Arrosa proiektuaren gaineko irratsaioa; eguaztenean, Euskal Herriko irrati libreen gaineko irratsaioa; eta egunean, Txapa irratiaren sortzaileekin tertulia. Guztiak 22:00etan izango dira. Bestalde, egunean, diapositiba emanaldia ere egingo dute, 19:00etan.

► **Gazteen eta droga kontsumoaren gaineko** jardunaldien barne,

honako hitzaldiak izango dira: hilaren 16an, martitzena, drogamenpekotasunaren prebentzioaren gaineko hitzaldia egingo du Nagore Ibarra Etorkintza taldeko teknikariak, eta hilaren 18an, eguena, kontsumoak egiten dituen kalteak eta arriskuak murriztearen gainean berba egingo du Txabi Ruiz Ai Laket! taldeko kideak. Hitzaldiok kultura etxean izango dira, 18:30ean.

► **Lizarraga-Urdain mendi ibilaldia**

antolatu dute Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek azaroaren 21erako. Txartelak salgai daude Pol-Polen, 40 eurotan. Bidaia eta bazkaria barne daude.

► **Jardun euskara elkarteak** bere egitasmoak koordinatzeko arduradun bat behar du. Bidali curriculumak euren bulegora, kultura etxean, edo [jardun@topagunea.com](mailto:jardun@topagunea.com) helbidera. Azaroaren 26a da mugaeguna.

### ELGETA

► **Bigarren eskuko gauzen azoka** egingo dute Eskola Txikien Jaian, eta hori prestatzeko materiala uzteko deia egin diete ikasleei. Horretarako egunak izango dira azaroaren 15etik 26ra, eskolan, 12:00-13:00.

### ESKORIATZA

► **Leintz Bertso Eskolak** astebete atzeratu behar izan du ikasturte hasiera. Horrenbestez, hilaren 19an hasiko da, Euskal Txokoan, 17:00etan. Argibideetarako, deitu 943 71 54 34 telefonora.

### OÑATI

► **Bigarren eskuko mendi eta eski materialaren azoka** antolatu du Aloña Mendik, eta materiala uzteko egunak izango dira hilaren 15, 16 eta 17a, elkartearen bulegoetan, 19:00-20:30. Eramaten den gauza bakoitzaren prezioa jabeak ipini behar du.

► **Urkiola-Jarindo-Benta Fria** ibilaldia egingo du Aloña Mendi elkarteak hilaren 21ean. Izena emateko, joan Aloña Mendi tabernara hilaren 18a baino lehen.

## OSPAKIZUNAK

### ESKORIATZA

► **Kilometroak 2005 jaialdiaren** aurkezpen txupinazo festa egingo dute gaur, egubakoitza, kiroldegian, 19:00etan. Hainbat ekintza izango dira: besteak beste, logotipoa eta salgai jarriko duten arropa aurkeztuko dute, eta musika, pertsonaia ezagunak, umore emanaldiak, olerkiak eta beste hainbat ekitaldi izango dira. Sarrerak 17:00etan ipiniko dituzte salgai, kiroldegiko txarteldegian. Lagun bakoitzak bi sarrera erosi ahal izango ditu gehienez ere.

### LEINTZ GATZAGA

► **XII. San Milixango azoka** izango da etzi, domeka, 09:30-14:00 eta 15:30-17:00. Lore lehor eta xaboi naturalak, sendabelarrak, larru-tailerra, buztzingintza tradizionala... landu eta erakutsiko dituzte.

### OÑATI

► **Nagusien Astea** izango da San Martin egoitzan. Etzi, domeka, hasiko dira ekitaldiak, meza batekin, 10:00etan. Hilaren 21era bitartean, musika, naturaren gaineko emanaldiak eta bazkariak izango dira.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Zer behar dut Internetera konektatzeko?** mintegia egingo dute Miramon Enpresa Digitalek martitzenean, hilak 16, Eskola Politeknikoan, 18:00etan. Doan da. Izena emateko, deitu 902 25 25 95era.

### BERGARA

► **Talogintzaren gaineko ikastaroa** deitu du Jardun elkarteak azaroaren 19rako, 17:00-20:00, Arrizuriagan, eta izenematea zabalik dago astelehenera bitartean, Jardunen bulegoan edo 943 76 36 61 telefonora deituta.

### ESKORIATZA

► **Oinarrizko Internet ikastaroa** izango da hilaren 15etik 29ra bitartean KZGunean, 11:00-13:00 orduetartean.

### OÑATI

► **Eustaten gaineko seminarioa** izango da egunean, hilak 18, KZGunean, 16:30etik 18:30era bitartean.

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Bizitzako aroen gaineko** umorezko antzezlanaren egingo du El Peli aktoreak gaur, egubakoitza, Kontzezino kaleko lamai kafetegian, 00:00etan, kafetegi horrek antolatutako udazkeneko antzerki zikloaren barne. Sarrera doan da.

► **Hurbil Erreinua** txotxongiloa izango da eguaztenean, hilak 17, Amaia antzokian, 15:00etan, 6-7 urteko umeei zuzenduta. Sexualitate aniztasuna da gaia, eta Udal Sexologia Zerbitzuak antolatzen du. Herriko ikastetxe guztiek parte hartzen dute.

### ELGETA

► **Las Mujeres de Verdad Tienen Curvas** antzezlanaren egingo du Ados taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian, 22:30ean.

### ESKORIATZA

► **Umeendako ipuin kontaketa saioa** izango da egunean, hilak 18, liburuetan, 18:00etan.

## ERAKUSKETAK

### ANTZUOLA

► **Herriko argazki lehiaketara** aurkeztu diren lanaren erakusketa izango da bihar eta etzi Orlaran etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00 orduetartean. Lehiaketako sariak domekan, hilak 14, banatuko dituzte, Orlaran etxean baita, 20:00etan.

### ARRASATE

► **Bizkaiko Golkoko izurde eta baleak** delako argazki erakusketa izango da Monterronen hilaren 17tik 30era bitartean, astegunetan, 18:00-20:00. Anbar Elkarteak antolatzen du, eta helburua da Kantauri Itsasoko -batez ere, Euskal Herriko kostaldeko- itsas animalia aberastasuna bistartzea. 40 argazkiko erakusketa da.

### ESKORIATZA

► **Aurora 2001** aurora borealen gaineko ikus-entzunezko erakusketa dago kultura etxean etzira, domekara, bitartean, 11:00-13:00 eta 18:00-20:00 orduetartean.



► ANTZERKIA

### 'DEKAMEROIA': BARREA, HERIOTZAREN AURKAKO ANTIDOTOA

Izurrite Beltza hedatu zen Florentzian 1348. urtean, eta egoera hark Boccaccio idazlea bultzatu zuen gerora bere maisulana izango zena idaztera: *Dekamerioia*. Heriotzaren eta gaixotasunaren antidoto bezala barrea proposatzen zuen bizitzaz betetako lan hark, eta gaur egun literaturako klasiko da. Liburu horretan oinarritutako antzezlanaren ikusteko modua dugu etzi, domeka, Arrasaten, Ados antzerki taldearen eskutik. Boccacciok kontatzen digu zelan goi klaseko lagun talde bat Florentziatik kanpo gordetzen den izurritea pasako den zain. Denbora-pasa moduan, ipuin alai eta maltzurak kontatzen dituzte: ezkutuko amodio eta sexu harremanak, inbidia, zeloak, bikoteen arteko iruzurrak... dituzte hizpide.

**Non:** Arrasateko Amaia Udal Antzokian. **Noiz:** etzi, azaroak 14, domeka. **Ordua:** 19:30ean.

**GIARTZU DERMOSTETIKA ZENTROA**  
Bonni Laskurain 3  
BERGARA  
943 76 35 71

### Laser bidezko depilazioa

Ile kalitate bakoitzerako laser bat:

- **Alexandrita laserra:** ile mehe eta argiendako
- **Neodimio Yag laserra:** ile lodia eta ilunendako

Gainbegiratze espezializatua

**Proba DOAN ordua eskatuta**







AIPAGARRI

**Dani Laskurain**

BERGARA

**D**ani Laskurain bergararrak lehen saria irabazi du Aoitzeke Nazioarteko Pintura Lehiaketan. 6.000 euro irabazi ditu. Laskurainek koadro abstraktua aurkeztu zuen lehiaketara, titulurik gabea eta 165x138 cm-koa. Sari banaketa abenduan egingo dute Aoitzen bertan.



**Deiane Arrieta**

ESKORIATZA

**B**ilbon egun hauetan egiten diharduten Euskarazko Kazetagitza I. Kongresuan hartu du parte Deiane Arrieta GOITBko aurkezleak. Berarekin batera beste debagoiendar batzuek ere hartu dute parte. Deianek *Arrasate Press*-en arrakastaren gakoak ikertu ditu.



**Ruper Ordorika**

OÑATI

**J**oseba Tapia eta Bixente Martinezekin batera, Hiru Trukuren hirugarren lana kaleratu du Ruper Ordorika musikari oñatiarrak. Nafarroako kantagintza tradizionalan errotutako 13 kantuk osatzen dute diskoa. *Nafarroako Kantu Zaharrak* da disko berriaren izena eta Metak-ek kaleratu du.



HILDAKOAK

- Claudio Gonzalez Gonzalez.** Arrasaten, azaroaren 3an. 88 urte.
- Antonio Jurado Zafra.** Arrasaten, azaroaren 4an. 75 urte.
- Carmen Castilla Torres.** Arrasaten, azaroaren 4an. 93 urte.
- Luis Rodriguez Fernandez.** Bergaran, azaroaren 4an. 64 urte.
- Rogelia Axpe Casero.** Arrasaten, azaroaren 5ean. 82 urte.
- Jose Luis Egaña Jauregiatzto.** Oñatin, azaroaren 6an. 65 urte.
- M. Asuncion Lasagabaster Arriola.** Arrasaten, 8an. 93 urte.




**Carmen Moralejo** eta **Mariano Perales** bikoteak 50 urte egingo ditu ezkontuta zapatuan, azaroaren 13an. Egun hori ospatzeko bazkari eder bat egingo dute familiarekin batera. Seme-alaben eta biloben partetik, zorionak!



**Alberto Hernandez** madrildarra eta **Edurne Bueno** arrasatearra Arantzazun ezkontu ziren duela gutxi. Sindika jabetxean bazkaldu zuten, eta oraintxe etorri dira ezkonbidaiatik. Zorionak, bioi, familiaren eta lagunaren partetik, eta urte askotarako!



Zumarragako **Miguel** eta **Rosi** 1969ko azaroaren 8an ezkontu ziren. Aste honetan 35 urte bete dituzte ezkontuta. Orain arte bezalaxe zoriotsu izaten jarrai dezazuela, eta zorionak, zuen seme-alaba Luis, Rosa eta Mikelen partetik eta baita iloba Jennyren partetik ere!



**Beñat Apraiz** eta **Nagore Arabiourrutia** arrasatearrak zapatuan, azaroaren 13an, ezkontuko dira Dorletako elizan. Bazkaria Gure Ametsa jabetxean egingo dute eta ezkon bidaiari Australia, Zelanda Berria eta Polinesiarra doaz. Zorionak, familiaren eta koadrilakoen partetik!



**Alberto Altuna** eta **Rosario Jazinta Letamendi** oñatiarrak 1954ko azaroaren 18an ezkontu ziren Oñatin. Bihar, zapatua, urrezko etzeiak ospatuko dituzte Oñatiko San Migel parrokiari. Meza ostean bazkaria egingo dute senideekin batera. Zorionak, familiaren partetik!

ESKELA

**Roge Axpe Casero**

Aitziber Aranburuzabala Juldain Goienako langilearen amama  
Arrasaten hil zen 2004ko azaroaren 5ean, 82 urte zituela.

GOIENAK bat egiten du senideen saminarekin.




Arrasaten, 2004ko azaroaren 12an.



URTEURRENA

**Inazio Mendizabal Eraña**

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 14an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Jose Antonio Imaz**

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 14an, 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

**Roge Axpe Casero**

Bixente Juldainen alarguna  
Arrasaten hil zen 2004ko azaroaren 5ean, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2004ko azaroaren 12an.

URTEURRENA

**Ramon Azpeitia Etxeberria**

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 14an, 10:30ean eta 13:00etan, Bergarako Santa Marina elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerririk asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Juan Iturbe Txintxurreta**

Maria Luisa Yeregiren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 14an, 10:30ean, Bergarako Santa Marina elizan.





Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztetik eskerririk asko sendikoen izenean.

## HITZGEZIDUNAK

Luma

	Lore mota	Mehe	Mahai-joko
	*Izena	Izotz, horma	
Irakurle-multzotxo	Festa	Potasioa	
Inguruan	Inprimatu	Irekiguneak	
		Herri hizk., zer	
		Mila	
Euskarri, babes			Mina, sufrimendua
Hautsaren araknido		Lotan	
		Greziarra	
Oinarritzko edaria		Altu, garai	
*Deitura		Trebe, iaio	
Litioaren sinboloa		Dirulaguntza	
Suari dariolina		Listua	
	Ditik		Azken letra
	Zilararren ikurra		Nori atzizkia
Lore mota			
Bogatzeko ekintza			
		Gipuzkoako herria	

## BILABILA7



## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaia argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

### GARIZUMAN

Garizuman, txartel denporan, Plaentxiako abade "kontroladore" batek esatetsa Urlixari:

- I, Urlixa, aurtzen ez tok eiñ Pazkuakorik.
- Bai, jauna, eiñ dot.
- Ez dok ba agertzen ire txartelik.

Urrengo urtian, Urlixak, konfusiñorik ez egoteko, txartela bota biarrian bere fotografixia bota zeban.

### PLAENTXIAKO BANDIA

Plaentxiako San Iñazio bandia-karlisten bandia- osoa famatua zan. Itxurazko musikuaq ziran. Ardaa bitarteko egon ez balitz...

Beñ baten baziarduen pieza bat jotzen. Batzuk amaitu eben. Bestiak, baña, ondiok jarraitu eitxen zebeñ joten. —Zelan jarraitu dozue?—, esan zetsen.

- Ene! Guri ondiok iru kompas falta jakuzen...

Jakiña, papelak aldrebes ipiñita...

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola




### Berba hauetatik zein ez da besteen sinonimoa?

Debagoieneko herri-hizkeraren barruan badira hainbat desberdintasun, batez ere, berben aldetik. Ez da batera harriztekoa gauza bera izendatzeko herri batean berba bat erabiltzea eta beste batean beste bat. Gipuzkeraz ukiulu esaten zaiona Debagoienean hiru modu desberdinetan behintzat izendatzen da. Jarraian datuzen berbetatik bat ez da ukuluren sinonimoa. Zein?

- Kortia
- Astotokixa
- Zaltaixa
- Ittoia

Erantzun zuzena: Astotokixa.

## SOLUZIOAK



B	O	G	A	•	A	I	A
G	A	U	L	O	R	E	•
K	E	•	T	I	K	•	Z
•	L	I	•	B	E	K	A
A	R	R	I	A	R	A	N
•	U	R	A	•	G	O	I
A	K	A	R	O	•	L	O
•	A	R	R	I	M	•	U
I	R	I	A	N	•	Z	E
•	I	•	J	A	I	•	K
•	•	•	R	E	N	•	A
F	E	L	I	X	•	•	•
•	•	G	•	•	•	•	•

## ASTEKO HOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

### ARIES

martxoak 21-apirilak 21

Nahiko pozik egongo zara, txikitako lagun batekin egingo duzulako topo. Txikitako orotzape-nak gogoratuko dituzue. Bestalde, argi ibili gauzak non itxen dituzun, lapurtu egin diezazkizukete-eta.

### TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21

Oso zeurekoa zara eta besteenganako mespretxua besterik ez daukazu; hori dela eta, ingurukoekin eztabaida bat baino gehiago izango duzu. Izan ere, zeure kolkoari begira zaude beti, baina jakin ezazu besteek ere euren beharrak badituztela.

### GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21

Iragana errekuperatzeko edozer egiteko gauza zara, baina horrek kalte besterik ez dizu egingo. Izan ere, ahalegin zaitzez oraina bizi izaten eta iragana ahazten.

### CANCER

ekainak 22-uztailak 22

Oraingo astean gogor lan egin beharko duzu eta gauzak argi eduki beharko dituzu, zerbait lortu gura baduzu. Aspaldiko lagun bat agertuko da; ez zenuten harreman onik iraganean.

### LEO

uztailak 23-abuztuak 22

Lanean hobekuntzak izango dituzu, eta horren ondorioz, zure segurtasuna eta autoestimua sendotu egingo dira. Bestalde, ahalegin zaitzez kalera irteten eta dibertitzen, hau da, egunerokotasunetik irteten. Azkenik, etxeko dekorazioan hainbat aldaketa egin beharko dituzu.

### VIRGO

abuztuak 23-irailak 22

Negoio edo kontraturen bat sinatzeko badaukazu esku artean, ahalegin zaitzez atzeratzen; izan ere, ez da une egokia hori egiteko. Bestalde, etxearen zimenduek arazoak emango dizkizute.

### LIBRA

irailak 23-urriak 22

Oso sasoi egokia edozein motatako inbertsioak egiteko. Bestalde, ohikoa baino denbora luzeagoa izango duzu aisialdirako, eta denbora hori aprobetxatuko duzu zure agiriak eguneratzeko eta ordenatzeko.

### SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22

Lan kontuak direla-eta bidaia egin beharko dituzu atzerria, eta ez zaizkizu batera onuragarri irtego; alderantziz, nahaspila handia sortuko dizute. Bestalde, komeni ez zaizun jendearekin elkartzeko zara, oso erraz engainatzen zaituztelako.

### SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21

Zure izaera harro eta despota dela eta, lagun handi batekin haserretu eta harekin hartu-emanen etenenezake; ahalegin zaitzez zure jokaera zuzentzen. Bestalde, lan-konpromiso ugari izango duzu.

### CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20

Eztabaida biziak eta familiarterako arazoak izango dituzu, arropatan, osagarritan eta gutiziatan gastatzeko joera handia daukazu-eta. Hori dela eta, familiarakoren bati mailegua eskatu beharko diozu.

### AQUARIUS


urtarrilak 21-otsailak 20

Une txarrak bizi izaten ari zara, eta deprimituta sentituko zara. Agian, zeure buruari galdetu beharko diozu egiten ari zarene ondo dagoen edo beste helburu batzuk markatu behar dituzun.

### PISCIS

otsailak 21-martxoak 20

Familiarterako arazoak izango dituzu, eta horren ondorioz denbora luzeagoa eman beharko duzu familiarakoekin. Lana alde batera utzi beharko duzu. Hasieran gogorra egingo zaizu.



GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA

Azaroaren 15a: 021 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Sariak, astero!

Astlehenean, azaroak 15, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.  
Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitzke sari hauen irabazleetako bat!**

### Azaroaren 15eko sariak

- **SAMSUNG DVD-707** zoragarria.

- Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, azaroaren 19an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **DANBAKA** kontzerturako.



- Bi gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, Elgetako Espaloia antzokian azaroaren 20an izango den 'TXILLIDALEKUTIK' musika ikuskizunerako.
- 'ASTO BAT HYPODROMOAN' umeendako liburua.
- 'LONDRESEN NAGO AITONAREKIN' umeendako liburua.



### ITSAS-BIDAIA MEDITERRANEOAN!

Bi lagunendako itsas-bidaia zozketatuko dugu. Zorte on!

Laguntzailea: **VIAJES IBERIA**

### BALDINTZAK

- Astleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astlehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ESKAINTZA BEREZIA

**51 Goienkari, 35 eurotan!**

2004 eta 2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astlehenean, aste bukaera osoa

020  
zozketa

saridunak

Hauek izan dira  
aurreko zozketako irabazleak.  
Zure izena zerrendan badago,  
**ZORIONAK!**



Juan Berezibar  
Arrasate

SARIA:  
Bergarako ZUMELAGA  
jatetxean afaria

AQUARIUMerako  
sarrerak

- Alberto Loiti Agirre (Arrasate)

Hamar gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, azaroaren 19an Elgetako Espaloia antzokian egingo den **DANBAKA** kontzerturako

- Jaione Elkoriribe (Oñati)
- Xabier Etxeberria (Oñati)
- Pedro Elorza (Oñati)
- Nieves Galdos (Eskoriatza)
- Arantza Garitano (Bergara)
- Maria Luisa Elorza (Oñati)
- Juan Ramon Erostarbe (Oñati)
- Olga Garai (Arrasate)
- Ainhoa Diez (Arrasate)
- Egaska taberna (Arrasate)

Bi gonbidapen, saridun bakoitzarendako bi, Elgetako Espaloia antzokian azaroaren 12an izango den 'LAS MUJERES DE VERDAD TIENEN CURVAS' antzezlanerako

- Antonio Iturbe (Antzuola)
- Maider Perez (Arrasate)

'ASTO BAT HYPODROMOAN' umeendako liburua

- Nagore Laskurain (Bergara)

'ZEU IDAZLE!' PCrako jokoa.

- Miren Galarza (Oñati)

'LONDRESEN NAGO AITONAREKIN' umeendako liburua

- Jose Luis Arana (Bergara)



**'Harmailatik'**

ASTELEHENA 15 / 21:00 eta 22:30

**Behobia-Donostian ibarreko korrikalariak egindakoa**

**H**armailatik saioko lankideak Behobia-Donostian izango dira Domekan. Astelehenean, lasterketa herrikoari tarte zabala eskainiko diote Goiena Telebistako kirol saioan. Honez gain, ohiko laburpenak ere emango dituzte, emaitzak...



**'Debarri'**

MARTITZENA 16 / 21:00 eta 23:00

**'Debarri' saioa estreinatzen dator Alberto Gorritiberea**

**H**amasei saio gidatuko ditu Alberto Gorritibereak ikasturte berrian, hamabostean behin. Horietatik lau eskualde mailako bereziak izango dira, tartean martitzenekoa: *Kooperatibak, Deba-goieneko bizkarrezur?*



**'Danbaka'**

MARTITZENA 16 / 22:00 eta 00:00

**Neure Baitan taldearen emanaldia Espaloia antzokian**

**K**oldo Altuna arrasatearrak beste bi lagunekin emandako kontzertua izango duzue ikusgai martitzenean. Adi, baina, ordutegi aldaketari. 21:30ean eta 23:00etan eskaini beharrean, 22:00etan eta 00:00etan izango duzue *Danbaka* saioa.



**'Danbaka'**

EGUENA 18 / 21:30 eta 23:00

**Enboskada taldearen oi! musika erakustaldia**

**A**rrasateko Enboskada taldeak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian eskaini zuen kontzertua ikusteko eta entzuteko aukera izango duzue eguenean, hilak 18. Oi! musikaren ordezkari fidelak dituzue Enboskadakoak.

**TELEBERRIAK**

**'Anaia Handia' gero eta handiago**

*Gran Hermano* eta antzerako saioak gero eta gehiago hedatzen ari dira. Telebista programatzaileen neurri-gabekeria izan daiteke edo ikuslearen jakin-min ase-gaitza, baina kontua da *reality show* formatuak izandako mugak gainditu egiten dituela urterik urte. *Gran Hermano* saioaren sortzaileen azken proposamena kameraz jositako herri birtual bat eraikitzea izan da. Alemanian eraikiiko dute *Trumanen show* berri hau, bere etxe, denda, lantoki eta elizarekin. Beste berezitasun bat ere badauka *anaia erraldoi* honek, lehiakideek gura duten beste denbora igaro ahal izango dutela bertan, agintariek aurkakoa esaten ez badute behintzat. Era berean, dagoeneko abian da Alemanian bertan *1900* saioa. Familia bat etxe baten sartu dute eta orain dela 100 urte moduan bizirazi dituzte, bai antzinako ohiturekin eta baita ere garai hartako gizarte rola bereganatuta; denboran atzera egindako bidaia.

**Emakume itsusiak eraldatzeko saioa**

*Zisnea: azkenean eder.* Hori da AEBetatik Europara ekarritako azken inportazioa. Emakume itsusien aurkako *azken gudu*a proposatzen du Alemanian egingo den saio berri honek. Lehiaketa bat da eta bertan euren buruak itsusiztat dituzten 16 emakumek agur esango diete ustezko zatartasunei. Horretarako, kirurgia saioak emitituko dira kliniketatik, azkenean euren *benetako nia* aurkitzeko.

**ASTEKO PROGRAMAZIOA / Azaroaren 12tik azaroaren 18ra**



EGUBAKOITZA 12	ZAPATUA 13	DOMEKA 14	ASTELEHENA 15	MARTITZENA 16	EGUAZTENA 17	EGUENA 18
13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero. 14:15 <b>Berriak</b> 14:45 <b>Behazulo</b> 15:15 <b>Danbaka:</b> Dixie 900 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:25 <b>Danbaka tartea</b> 20:30 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero 21:00 <b>Ilunpean</b> 21:30 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 22:00 <b>Berriak</b> 22:25 <b>Danbaka tartea</b> 22:30 <b>Ilunpean</b> 23:00 <b>Gure lanbide zaharrak</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	11:00 <b>Behazulo</b> 11:35 <b>Danbaka:</b> Denial 12:05 <b>Danbaka tartea</b> 12:10 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero 13:30 <b>Oinak izarretan:</b> Mali: Fatimaren eskua 14:00 <b>Filma:</b> Ipar haizearen itzulera 15:15 <b>Ilunpean</b> Maider Egues 15:45 <b>Danbaka:</b> Dixie 900 16:15 <b>Danbaka tartea</b> 16:30 <b>Bi eta bat</b> 17:00 <b>Iragana gogoratu</b> 17:30 <b>Klip@</b> 17:45 <b>Behazulo</b> 18:15 <b>Danbaka:</b> Denial eta Dixie 900 19:15 <b>Danbaka tartea</b> 19:30 <b>Emisio amaiera</b>	11:00 <b>Filma:</b> Ipar haizearen itzulera 12:15 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak 13:10 <b>Danbaka:</b> Dixie 900 13:40 <b>Danbaka tartea</b> 13:55 <b>Oinak izarretan:</b> Mali: Fatimaren eskua 14:25 <b>Ilunpean</b> 15:00 <b>Klip@</b> 15:15 <b>Gure lanbide zaharrak:</b> Gozogintza 15:45 <b>Filma:</b> Denial 17:00 <b>Danbaka:</b> Denial 17:30 <b>Danbaka tartea</b> 17:35 <b>Bi eta bat</b> 18:05 <b>Ilunpean</b> 18:35 <b>Iragana gogoratu</b> 19:00 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero 14:15 <b>Berriak</b> 14:40 <b>Danbaka tartea</b> 14:45 <b>Ilunpean</b> 15:15 <b>Gure lanbide zaharrak:</b> Gozogintza 15:40 <b>Danbaka tartea</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:25 <b>Danbaka tartea</b> 20:30 <b>Marrakzi bizi dunak:</b> Kalimero 21:00 <b>Harmailatik</b> 22:00 <b>Berriak</b> 22:25 <b>Danbaka tartea</b> 22:30 <b>Harmailatik</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak 14:15 <b>Berriak</b> 14:40 <b>Danbaka tartea</b> 14:45 <b>Harmailatik</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:10 <b>Danbaka tartea</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:00 <b>Emisio hasiera</b> 19:05 <b>Oinak izarretan:</b> Chamonix: urrututako bideetan 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrakzi bizi dunak:</b> Kalimero 21:00 <b>Debarri</b> 22:00 <b>Danbaka:</b> Neure baitan 22:30 <b>Berriak</b> 23:00 <b>Debarri</b> 00:00 <b>Danbaka</b> 00:30 <b>Gaurkoak</b> 00:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Kalimero 14:15 <b>Berriak</b> 14:45 <b>Oinak izarretan</b> 15:15 <b>Danbaka:</b> Denial 15:45 <b>Berriak</b> 16:15 <b>Debarri</b> 17:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:25 <b>Danbaka tartea</b> 20:30 <b>Marrakzi bizi dunak</b> 21:00 <b>Iragana gogoratu</b> 21:30 <b>Bi eta bat</b> 22:00 <b>Berriak</b> 22:25 <b>Danbaka tartea</b> 22:30 <b>Iragana gogoratu</b> 23:00 <b>Bi eta bat</b> 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>	13:50 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak 14:15 <b>Berriak</b> 14:40 <b>Danbaka tartea</b> 14:45 <b>Iragana gogoratu</b> 15:15 <b>Bi eta bat</b> 15:45 <b>Berriak</b> 16:10 <b>Danbaka tartea</b> 16:15 <b>Klip@</b>  19:30 <b>Emisio hasiera</b> 19:35 <b>Gaurkoak</b> 19:45 <b>Klip@</b> 20:00 <b>Berriak</b> 20:30 <b>Marrakzi bizidunak:</b> Animalikeriak 21:00 <b>Behazulo</b> 21:30 <b>Danbaka:</b> Enboskada 22:00 <b>Berriak</b> 22:30 <b>Behazulo</b> 23:00 <b>Danbaka</b> Enboskada 23:30 <b>Gaurkoak</b> 23:45 <b>Emisio amaiera</b>
21:00 <b>Ilunpean</b>	16:15 <b>Danbaka</b>	11:00 <b>Ipar haizearen itzulera</b>	21:00 <b>Harmailatik</b>	22:00 <b>Danbaka</b>	21:30 <b>Bi eta bat</b>	21:30 <b>Danbaka: Enboskada</b>

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: goitb@goiena.com • Telefonoa: 943 71 23 95

**KAMERA AURREAN**



*"Urkulu zaintzeaz ez da inor arduratu. Zainketa egokia egiteko hitzarmena sinatu beharko litzateke jabeen eta erabiltzaileen artean, besteak beste".*

Antxon Bandres / Mendi federazioko presidentea 'Berriak' (2004/11/08)



*"Jendea kontzientziatzeko, eztabaida sortzeko eta, batez ere, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei gure elkartasuna emateko sortu dugu plataforma".*

Mikel Otxandiano / Plataformako kidea 'Berriak' (2004/11/10)

**DANBAKA))))))**

DEBAGOIENENKO I. MUSIKA LEHIAKETA

**Emanaldiak GOITBn**

**Astelehena, 15 • 20:25 eta 22:25**  
Neure Baitan bakarlariaren aurkezpen saioa.

**Martitzena, 16 • 21:30 eta 23:00**  
Neure Baitan bakarlariaren kontzertua.

**Eguaztana, 17 • 20:25 eta 22:25**  
Enboskada taldearen aurkezpen saioa.

**Eguena, 18 • 21:30 eta 23:00**  
Enboskada taldearen kontzertua.

**Egubakoitza, 19 • 20:25 eta 22:25**  
Asteak eman duena gainbegiratu dugu: Neure Baitan+Enboskada.

Horrez gain, Publikoaren sariaren gaineko sailkapenaren eta eguneko kontzertuaren berri.



## ITZIAR UGARTE

*Optika*

*Audiometria*

*Betaurrekoetan azken joerak*

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE  
943 08 26 87

ZABALDU BERRIA

Eskola Politeknikoaren ondoan

**kalitateko haragia eska ezazu bere izenez**



### Soilik Harategi hauetan

**Baimenduak:** Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak.

**Artisauak:** Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak.



**ANTZUOLA**  
GABILONDO ARREGI HARATEGIA  
KALEBARREN, 14

**ARAMAIO**  
BIXENTE L. AZPILIKUETA HARATEGIA  
BIXENTI GOIKOETXEA PLAZA, 8

**ARRASATE-MONDRAGON**  
LANDALUZE HARATEGIA  
ITURRIOZ, 7

JOSE MARI SALEGI HARATEGIA  
OLARTE KALEA, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA  
DOCTOR BAÑEZ, 10

AZPILIKUETA HARATEGIA  
ERGUIN, 12

KORTABERRI HARATEGIA  
ANTXO ABARKA, 1

#### BERGARA

ANDRES MUJIKA HARATEGIA  
DOMINGO IRALA, 5

BIXAIN HARATEGIA  
AZOKA PLAZA PTO. 5-6

ALDAI HARATEGIA  
ESPOLON, 12

#### ESKORIATZA

ZUBIA HARATEGIA  
SANTA ANA, 11

#### OÑATI

ANTXON HARATEGIA  
SAN LORENTZO, 5

TARSICIO HARATEGIA  
PORTU KALEA, 2

GARAY HARATEGIA  
MAIATZAREN LEHENA PLAZA, 2

SUPER BM OÑATI-HARATEGIA  
OLAKUA AUZOA, 8

## Atzeskua

OIHANA ELORTZA

### Usune Bengoa/ Ehiztaria

**U**sorik harrapatu duzu aurtengo udazkenean? Bai. Uso bat eta birigarro bat ehizatu ditut.

**Egia izango da ezta? Ehiztariok gezurti ospea duzue-eta.**

Agian bai, baina ehiztari batek badaki beste ehiztari batek gezurra noiz esan dion, berehala atzematzen du kontatutakoa gezurra dela.

**Noiz hasi zinen ehizan?**

Aita ehiztaria dugu eta txikitan ere joaten nintzen berarekin ehizara. 14 urtekin ehizarako lizentzia ateranuen eta aurtent, 16rekin, armen baimena ere ateratu dut. Hala ere, aitak lagunduta egin behar dut ehizan 18 bete arte.

**Moldatzen zara eskopetarekin?**

Nire neurrira moztu zidan bere eskopeta zahar bat aitak eta horrekin nabil. Hasieran, golpe asko jasotzen nituen sorbaldan eskopetak tiroa bota ondoren atzera egitean, baina ondo moldatzen naiz.

**Eta non egiten duzu ehizan?**

Eskoriatzan bertan. Marin, Apotzaga eta Leteko gunetan dauden postuak zozketatzen dira hemen;

Eskoriatzan bi *linea* daude. Gu, normalean, Maringo postuetara joaten gara. Lehen, Andaluzian ere egiten genuen ehizan udan, baina aurten ez gara joan.

**Zenbat kilo eramaten dituzu soinean?**

Aitak ez du 4x4 autorik eta ez gara posturaino bertaraino autoz joaten, baina erraz eramaten dut txaleko eta eskopetaren pisua.

**Ze izen du zure ehiza txakurrak?**

Ez dut ehiza txakurrik. Ehizak bizpahiru hilabete iraute du eta ez du merezi hain denbora laburrerako txakurra izatea. Gainera, gure ahizpa Oihane ere gurekin etortzen da ehizara eta berak egiten ditu txakurlanak. 11 urte ditu eta ezin duenez eskopeta erabili bera joaten da aitak edo nik botatako usoaren bila.

**Jaten duzu ehizatutako animalia?**

Bai. Gure ama oso sukaldari ona da eta era askotara

prestatzen du ehiza: birigarroak erreta edo arrozarekin eta usoak babarrunekin edo saltsan, adibidez.

**Ama ez, etxeko gainerrako guztiok zarete ehiztariak. Zer dio berak?**

Ehiza asko ekartzen badugu etxera guk lumatu beharko dugula.

**Eta lagunek zer esaten dituzte?**

Normala ez naizela diote; ez dela normala goizeko seietan jaikitzea postu batean gelditu egoteko. Niri, hala ere, ez zait batere kostatzen.

**Asteburu guztietan joaten zara?**

Ahal dudun guztietan. Datorren astean, adibidez, azterketak ditut eta asteburu honetan ez naiz joango.

**Ehizak zoratu egiten zaitu?**

Ez. Euri asko bada, ez naiz joaten eta goiz baten usorik pasatzen ez dela ikusten badut, eskopeta hartu eta lehenago noa etxera.



**“Ehiza asko ekartzen badugu guk lumatu beharko dugula esaten digu amak”**

**“Ahizpak 11 urte ditu eta gurekin etortzen da, baina oraindik ezin du eskopeta erabili eta txakur-lanak egiten ditu”**

**“Ehiza asko gustatzen zait, baina oraindik ez nau zoratu; euri asko bada, ez noa”**

► Eskoriatza / 16 urte / Batxilergoa ari da ikasten

## PIPERRAUTSA

### Ospitalea

**Z**alaparta eragin du Lagun Arok, erabaki duenean osasun zerbitzua Osakidetza bidez emango duela, laster batetik aurrera. Lehenengotan, 35.000 erabiltzaile berri izango zirela ere zabaldu zen, baina azkenean hori baino dezente gutxiago izango omen dira ibarrean.

Hala ere, Debagoieneko Ospitaleak lehen ere ez zeukan sobranterik, eta bezero hazkunde kolpeko honek argi gorriak piztu ditu Arrasateko Udalean, eta sortu da eztabaida ea hobe den lehengoa handitzea hala ospitale guztiz berria egitea. Nire ustez, Mankomunitateak zuzendu beharreko gaia zen hau, baina dagoeneko Arrasateko Udalak postura egin du ospitale berriaren alde. Ni beste iritzikoa naiz.

Bat. Oraingo kokapena ezin hobea da. Arrasateko 23.000 biztanleek oinez daukate eskura ospitalea, eta eskualdekoek errepide ondoan. Beste edozein tokitan, garraio gehiago beharko litzateke. Eta gogoratu Kioto.

Bi. Ospitaleko zati nagusia oso berria da, eta bikain egina. Gainera, anbulatorioa zaharberritzen ari dira, hiru solairutik bi guztiz berriak daude. Handikeria iruditzen zait hori guztia ez aprobetxatzea.

Hiru. Ez naiz arkitekto, baina uste dut anbulatorio atzean altxa daitekeela falta den zatia, eta besteekin lotuta ospitale moderno osatu. Askoz merkeago, seguru.

Askok zor diote goiko erakundeek Debagoienari, ez derrigor ospitale berria. Ez gaitzen itsutu.

MIKEL IRIZAR



**%10eko deskontua**  
audiofonoen egokitzapenean



**Bazenekien 65 urtetik gorako biztanleen %6k entzumen arazoak dituztela?**

**ENTZUMENAREN AZTERKETA DOAN**



**ARRASATE:**  
Erdiko kaleko 22.  
Tel.: 943 79 71 68

**BERGARA:**  
Bidekurutzeta 10.  
Tel.: 943 76 97 03